



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2020.10.20

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Nerea Letamendia Beloso

Begoña Tolosa Mendia

Patxi Amantegi Zubiria

Xabier Balerdi Tolosa

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko urriaren hogeian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2020ko urriaren 13ko ohiko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea Tolosa Udaleko 2020ko ekitaldiko lan eskaintza publikoa.
3. Behin betiko onespina ematea hitzarmen honi: Uzturre kaleko 10ean dagoen partzelaren jabeekin hitzarmen urbanistikoa, Uzturre kalearen berrantolaketa eta hobekuntzaren ondoriozko lur-lagapenen oinarriak ezartzen dituen.
4. Onartzea Gipuzkoako Ur-kontsortzioarekin hitzarmena sinatzea, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak eremuko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-obrak egiteko.
5. Onartzea Tolargi SL enpresarekin hitzarmena sinatzea, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak eremuko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-obrak egiteko.
6. Onartzea Telefónica de España SAU enpresarekin hitzarmena sinatzea, haren jabetzako aireko eta/edo fatxadetako telefono



TOLOSAKO
UDALA

instalazioak kentzeko eta telekomunikazioetako instalazio lurperatuak erabiltzeko, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak eremuko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio obrak egiteko.

7. Dekretu hauen berri ematea:

- 2020/1653 Dekretua: 2020/43 eta 2020/44 faktura zerrendak.

8. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko urriaren 1etik 8ra (2020/1542-2020/1606).

1. 2020KO URRIAREN 13KO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko urriaren 13an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSA UDALEKO 2020KO EKITALDIKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA.

AURREKARIAK

I.- Tolosako Udalbatza Plenoak, 2018ko urriaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, *Giza Baliabideak arrazionalizatzeko 2018-2020 bitarteko Programa/Enplegu Planaren 1. Fasea* hasieraz onartu zuen. Ebazpen hauek argitaratu ziren udaletxeko web orriko Iragarki Taulan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (214 zk.an, 2018ko azaroaren 7an). Halaber, Enplegu Planaren Memoria, Lanpostuen Zerrenda eta Lan Eskaintza Publikoen eta Hautaketa Jardunbideen egutegiaren proposamenak udal sarean jarri ziren, langile guztien eskura, 2018ko azaroaren 8tik aurrera. Horretaz gain, Lanpostuen Zerrendako hainbat lanpostuen ordainsarrietan akats numerikoak zeudela ikusita, zuzenketak egin ziren informazio publikoko epearen barruan, beti ere alegazioak aurkezteko epea amaitu aurretik.

Informazio publikoko epean alegazioak aurkeztu ondoren, 2018ko abenduaren 10ean egindako udalbatza plenoak aztertu eta ebatzi zituen. Halaber, dokumentuak behin betiko onspena jaso zuen.



II.- Bilkura berdinean, Udalbatza Plenoak, udaleko 2018ko ekitaldiari dagokion Lanpostuen Zerrenda onartu zuen, behin betiko onespena jaso zuelarik

III.- 2019ko lan eskaintza publikoan sartzea proposatu diren plazak eta lanpostuak:

III.1.- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 1. Fasearen helburu nagusiak ondoko hauek dira:

1. Aldi baterako lanpostuak eta funtzioak egonkortzeko 2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontuak arautzen dituzten Legeek ematen dituen aukerez baliatzea, udaleko plantilla egonkortzeko eta prekarietate-maila gutxitzeko, aurreikusten diren hautaketa-jardunbideetan Tolosako udaleko udal lanpostuetan izandako esperientzia bereziki kontuan hartuz.
2. Premia duten lanpostuak sortzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta:
 - 2.1. Legeak xedaturiko funtzioak eta zereginak betetzea: Diruzaina, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Delegatua, Kontratazio arloko Teknikaria.
 - 2.2. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuan epe laburrean aurreikusten diren aldaketa eta gabeziei aurre egitea, beti ere Legeak xedatzen dituen mugak errespetatuz.
 - 2.3. Udalaren eskumenekoak diren eta ezinbestekoak diren zerbitzuak ematea: Gizarte Zerbitzuak, Udal Ondarearen Kudeaketa, UDATE, Sustapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Feriak, etab.
3. Hasiera batean amortiza edota alda daitezkeen lanpostuak identifikatzea.
4. Tolosako udaleko sektore publikoa berrantolatzea: hainbat sozietate instrumentalen disoluzioa bideratzea; sozietate haietan burutzen diren eta funtzio publikoko izaera duten eginkizunak administrazio publikoak bereganatzea; langileak hautatzeko garaian publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasunean oinarritutako prozesuak baliozkotzea, eta, azken finean, Tolosako udalaren sektore publikoa arrazionalizazio eta eraginkortasunean oinarritzea, funtzio publikoak bermatuz. Halaber, amortiza daitezkeen lanpostuak amortizatzea, udalaren beharretara egokitzeko. Era honetan, plangintza honek Erretengibel S.A. , eta Tolosa Lantzen S.A. eragingo ditu.
5. Plantillaren malgutasuna eta mugikortasunerako tresnak sortzea, giza baliabideen optimizazioa eta zereginetikiko egokitasuna bermatzeko, beti ere langileen eskubideak kontuan hartuta: plazen definizio orokorragoak, barne-sustapeneko jardunbideak, lanpostuen birbanaketa eta langileen berrizendapena, etab. Horretaz gain, sortzen diren singularizatu gabeko plaza berriak ahalik eta era zabalenean definituko dira.



6. Udaleko gainontzeko Departamentuetan izan daitezkeen gabeziak eta hutsuneak detektatzea, hasiera batean, Bigarren fasean garatu behar den prozesuaren kalterik gabe.
7. Tolosako udaleko Lanpostuen Zerrenda egokitzea.

Programazio honen barruan, 2020ko Lan Eskaintza Publikoa zehazteko garaian, Estatuko Aurrekontuak arautzen dituen 6/2018ko Legeak jarritako mugak kontuan hartu daitezke, hain zuzen aurrekontu mailako muga eta birjarpen tasari dagokiona edota kontuan hartuta 2020 urtean Estatuko Aurrekontu orokorrak ez daudela onartuta, beste interpretazio bat ere egon daiteke Lan Eskaintza Publikoa onartu ahal izateko.

III.2.- Egoera honen aurrean, ondoko lanpostu eta plaza hauek hornitzea proposatzen da:

III.2.1.- LANPOSTUAK BETETZEA BARNE LEHIAKETAREN BITARTEZ: udateko bi administrari, Kirol administraria, errenta administraria eta Kontratazioko administraria.

III.2.2.- PLAZAK HORNITZEA ENPLEGUA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEAN: AOT partaidetza, gardentasuna eta datuen babesa, berdintasun teknikaria (II), etxebizitza eta ondare kudeaketarako teknikaria, informatikaria, ingeniari teknikoa, ingurumen teknikaria eta liburuzaina.

III.2.3.- PLAZAK HORNITZEA OPOSIZIO-LEHIAKETA LIBREAN: Hirigintzako AOT, kultura kudeaketarako teknikaria, Peoiak (4), Garapen ekonomiko, Turismo eta burua eta Hirigintzako burua.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 10. artikuluan, bitarteko funtzionarioen araubidea xedatzen du, honako era honetan:

1. Son funcionarios interinos los que, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia, son nombrados como tales para el desempeño de funciones propias de funcionarios de carrera, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) La existencia de plazas vacantes cuando no sea posible su cobertura por funcionarios de carrera.

b) La sustitución transitoria de los titulares.

c) La ejecución de programas de carácter temporal, que no podrán tener una duración superior a tres años, ampliable hasta doce meses más por las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto.



TOLOSAKO
UDALA

d) *El exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses.*

2. *La selección de funcionarios interinos habrá de realizarse mediante procedimientos ágiles que respetarán en todo caso los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.*

3. *El cese de los funcionarios interinos se producirá, además de por las causas previstas en el artículo 63, cuando finalice la causa que dio lugar a su nombramiento.*

4. *En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, **las plazas vacantes desempeñadas por funcionarios interinos deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y, si no fuera posible, en la siguiente, salvo que se decida su amortización.***

5. *A los funcionarios interinos les será aplicable, en cuanto sea adecuado a la naturaleza de su condición, el régimen general de los funcionarios de carrera.*

6. *El personal interino cuya designación sea consecuencia de la ejecución de programas de carácter temporal o del exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses, podrá prestar los servicios que se le encomienden en la unidad administrativa en la que se produzca su nombramiento o en otras unidades administrativas en las que desempeñe funciones análogas, siempre que, respectivamente, dichas unidades participen en el ámbito de aplicación del citado programa de carácter temporal, con el límite de duración señalado en este artículo, o estén afectadas por la mencionada acumulación de tareas.”*

Beraz, aipatu Legearen 10.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioen bidez hornitzen diren lanpostuak, Lan Eskaintza Publikoan sartu behar dira, bitarteko funtzionarioa izendatzen den urtean edo hurrengoan, eta era finkoan hornitzen dira edota amortizatu egin behar direla.

II.- Toki erakundeek kasuan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 91. artikuluan ondokoa xedatzen du:

- **Tokiko korporazioek urtero osatuko dutela euren lan eskaintza, estatuko oinarritzko araudian ezarritako irizpideak kontutan hartuz.**
- **Pertsonal guztiaren hautaketa, izan funtzionarioak edota lan-itunpekoak, lan eskaintza publikoaren arabera egingo direla, deialdi publikoaren bidez eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak bermatuko diren sistemen bidez - lehiaketa, oposizio edota oposizio-lehiaketa irekia -.**



Zentzu berean, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekreturen 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epe barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorritz.

Artikulu horren 2. atalak behin betiko pertsonala izendatzeko ondoko betebeharra ezartzen du: *“2. No podrá nombrarse personal interino para plazas que no se hayan incluido en la oferta de empleo público, salvo cuando se trate de vacantes realmente producidas con posterioridad a su aprobación.*

El personal que ostentare la condición de interino cesará automáticamente al tomar posesión como funcionarios de carrera los aspirantes aprobados en la respectiva convocatoria. Sólo podrá procederse al nombramiento del nuevo personal interino para las plazas que continúen vacantes una vez concluidos los correspondientes procesos selectivos.”

III.- Funtzio publikoko legedian, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 70. artikulua lan eskaintza publikoari dagokionean ondokoa xedatzen du:

“1. Las necesidades de recursos humanos, con asignación presupuestaria, que deban proveerse mediante la incorporación de personal de nuevo ingreso serán objeto de la Oferta de empleo público, o a través de otro instrumento similar de gestión de la provisión de las necesidades de personal, lo que comportará la obligación de convocar los correspondientes procesos selectivos para las plazas comprometidas y hasta un diez por cien adicional, fijando el plazo máximo para la convocatoria de los mismos. En todo caso, la ejecución de la oferta de empleo público o instrumento similar deberá desarrollarse dentro del plazo improrrogable de tres años.

2. La Oferta de empleo público o instrumento similar, que se aprobará anualmente por los órganos de Gobierno de las Administraciones Públicas, deberá ser publicada en el Diario Oficial correspondiente.

3. La Oferta de empleo público o instrumento similar podrá contener medidas derivadas de la planificación de recursos humanos.”

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatu publikoei aplikagarri zaien Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikulua, lan eskaintza publikoen inguruan ondokoa xedatzen du:

1. Las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes en cada Administración Pública serán objeto de oferta de empleo público.



TOLOSAKO
UDALA

2. La oferta de empleo público expresará las plazas vacantes que deban cubrirse, tanto de funcionarios como de personal laboral fijo, clasificadas por categorías laborales o por grupos, cuerpos y escalas de funcionarios. La inclusión de dichas plazas no precisará de la realización de concurso previo, respecto de los correspondientes puestos de trabajo, entre quienes ya tuvieren la condición de funcionarios.

3. No podrán convocarse pruebas selectivas para la provisión de plazas cuya cobertura no se halle comprometida en la oferta de empleo público.”

Lege horren 24. artikulua, lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko betebeharra xedatzen du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eskaintzen laburpena ere.

IV.- 2018 ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 6/2018 Legearen 20. artikulua Lan eskaintza publikoen inguruan ondokoa xedatzen du:

19. art. - Lan Eskaintza Publikoa edo antzeko beste tresnaren bat pertsonal-beharren hornikuntza kudeatzeko.

Legeak zehaztutako sektore publikoan pertsonal berria txertatzeko, gero adierazten diren ataletan xedatutako mugak eta baldintzak bete behar dira. [Honako hauek salbuetsita daude: merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nagusiki Sektore Publikoa osatzen duten Administrazioek eta Organismoek parte hartutako partzuergoak, horiek denak, hurrenez hurren, Lege honen eta Estatuko Organo Konstituzionalen hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoari jarraituko baitiote]:

- Salbuespena: aurreko EPE batzuei dagozkien hautapen-prozesuetatik datorren pertsonala txertatzea.
- 1. muga: Gastuen aurrekontuaren 1. kapitulua. *(homogeneotasun-egoeren haustura-kasuetan izan ezik, Programa honetan argudiatzen den bezala).*

Administrazio Publikoetan pertsonala txertatzeari buruzko xedapenak:

- a) Aurreko ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunari eta zor-publikoari eta gastu arauari buruzko helburuak bete dituzten Administrazio Publikoak (*hau ez litzateke Tolosako udalaren kasua*):
 1. Birjarpen-tasa, ehuneko 100.
 2. Tasa gehigarria, % 8, giza baliabideen errefortzua behar duten sektoreetan, betiere aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunaren esparruaren barruan. *Portzentaje gehigarri hau lehentasunez erabiliko da jarraian azaltzen diren egoeraren bat gertatzen denean: zerbitzu publiko berriak ezartzea, urte-sasoia araberako jarduera jarduera turistikoaren eraginez handitzea edo espero diren erretiro-kopurua altua izatea.*



3. Aipatutako portzentajea % 10 izango da toki-erakundeentzat, baldin-eta, aurreko baldintzaz gain, zor-finantzarioa 2017ko abenduaren 31n amortizatua badaukate.
 4. Bere birjarpen-tasa edozein sektore edo kolektibotan, berdin dio zeinetan, metatzeko aukera.
- b) Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, Autonomietako Polizia Kidegoetarako eta Udaltzaingoetarako, birjarpen-tasa izango da ehuneko 115.
- c) Birjarpen-tasa gehigarria, % 5, udalerrri guztiek, baldin-eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 26.1 artikulua aplikatuta, 2013tik 2017rako denboraldiko ekitaldiren batean zerbitzu publiko gehiago emateko legezko betebeharra izan badute, urte horietako urtarilaren 1ean eguneratutako udal-eroldaren arabera zuzenbidezko biztanleria hazteagatik. Tolosako udalak ez luke beteko baldintza hau, aipatu Legearen 26.1 xedaturiko biztanleen kopuru-muga ez duela bete (20.000 biztanle)
- d) Giza baliabideen birjarpen-tasaren kalkulua: aurreko urteetan bezala. Espediente honen kasuan, kontuan hartu beharko dira 2017an eta 2018an emandako jubilazioak, halaber 2019an aurreikusten direnak, Lan Eskaintza Publikoak onartzeko garaian.
- e) Giza baliabideen birjarpen-tasatik eratortzen den gehienezko plaza-kopuruaren barruan ez dira aintzat hartuko barne-sustapeneko prozeduren bidez hornitzeko ateratzen diren plazak, ez eta epai judizial bidez mugagabe ez-finkotzat jotako pertsonalari dagozkionak ere.
- f) **ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO TASA GEHIGARRIA**, 2017ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean (ALO) dagoenaz gain:
1. Barne hartuko ditu izaera estrukturaleko plazak.
 2. Aurrekontu-zuzkidura dutenak.
 3. Aldi baterako lotura duen langileek betetzen dituztenak. Posible al da posturik ez duten plazak aintzat hartzea? BAI, AURRETIK LANPOSTU-ZERRENDA (LPZ) GASTUA HANDITU GABE ALDATUZ GERO. BIRKALIFIKATU DIREN PLAZAK ERE SAR DAITEZKE, betiere eginkizunak aldatzen ez badira. Auzitegi Gorenak 2016ko azaroaren 29an emandako bi epai: 1003/2016 eta 1022/2016. Tolosako udalaren kasuan, 2018ko Lan Eskaintza Publikoak eragiten dituen lanpostu guztiak sailkaturik daude Lanpostuen Zerrendan.
 4. Gutxienez 2014ko abenduaren 31 ezkerro, aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.
 5. Honako sektore eta kolektibo hauetan: administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntza-arlokoak, osasun publiko eta ikuskatzailea medikokoak, bai eta beste zerbitzu publiko batzuk ere. Guztiak, Toki



Administrazioan, 2018ko Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen Legearen xedapenak kontuan hartuz.

6. Tasa gehigarri honi dagozkion Enplegu Publikoko Eskaintzak: onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu behar dira, 2018-2019 eta 2020 ekitaldietan. Egonkortze prozesuen barruan dauden plazak aldi baterako betetzeko tasak ehuneko 8tik behera egon behar du, arlo bakoitzean, aldiaren amaiera. TASEN BALIOZKOTASUNA BALDINTZA HAUEK BETETZEAREN MENDE GELDITZEN DA.
7. Hautaketa-prozesuak: berariazkoak, irekiak, lehia libre, berdintasun, meritu, gaitasun eta publikotasun printzipioak berrmatuta.
8. Negoziatu ahal izango dira Estatuko Administrazio Orokorreko eta Autonomia Erkidegoetako eta Toki-Erakundeetako lurralde-eremu bakoitzean.
9. Prozesu horiek garatzeko, Administrazio desberdinen arteko koordinazioa posible egiten duten neurriak artikulatu daitezke.
10. MUGAK: Gastu-gehikuntzarik ez, giza-baliabideen gehikuntzarik ez.
11. Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioari jakinarazi behar zaio aldi baterako zenbat plaza dauden, bai eta ISPA sistemaren bidezko egonkortze-prozesuen emaitzak ere.

Aldiz, 19.4 artikuluan adierazitakoaren baitan, zor publiko eta aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuen erregela betetzen ez dituzten administrazio publikoen birjarpen tasa % 75ekoa izango da.

Arau hauek guztiek oinarritzko izaera dute eta Konstituzioaren 149.1.13a eta 156.1 artikuluen babespean ematen dira.

Guzti hau ikusi ondoren, aurtengo Lan Eskaintza Publikoari dagokionean, bi aspektu azpimarratu behar dira:

- Batetik, Tolosako Udalak 2019 urtean gastuaren erregela ez du betetzen, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, aurrekontu egonkortzeari buruzkoa, ezarritako irizpideen baitan.

- Bestetik, Lan eskaintza Publikoan txanda librean lanpostu bakarra ateratzen da eta hau udaltzaina plaza bat da. Horregatik, kasu honetan, Estatuko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen 6/2018 Legearen 19.5 artikulua birjarpen tasaz ari denean, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, Autonomietako Polizia Kidegoetarako eta Udaltzaingoetarako, birjarpen-tasa % 115 izango dela xedatzen du.



TOLOSAKO
UDALA

V.- Dena den, aurreko puntuan arrazoitu diren argudioak zalantzan jarri daitezke, izan ere gaurko egunean, 2020 urtean ez daude Estatuuko Aurrekontu Orokorrak onartuak eta hauek urtebeteko iraupena izanik (urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean), hauen isilbidezko luzapena zalantzan jartzen da, batipat Lan eskaintza Publikoari dagokionean eta birjarpen tasaren mugaz hitzegiten ari garenean. Hala eta guztiz ere, 2019 urteko Estatuko Aurrekontu Orokorri jarraituz, birjarpen tasa betetzen da eskaintza publikoan egiten den proposamenari begira, 2019 urtean bederatzi jubilazio egon zirelako (hiru udatzain, ordenantza-jakinarszlea, obra eta zerbitzuetako agentea, komertzializazio agentea, musikako irakaslea, hirigintza, obra eta zerbitzuko administraria eta euskaltegiko irakaslea).

VI.- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua (I) atalean xedaturikoaren arabera, lan eskaintza publikoetan ezarri beharreko irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar direla, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Aipatu diren irizpide orokorrei dagokionez, hauek planteatzen dira:

- 2018 urtean Udaltzako onartutako Enplegu Planak aurreikusten zuen langileen aldi baterako zein behin-behineko portzentaia kontuan hartuaz, beste hainbat neurrien artean, plantilla egonkortzeko prozesuak abian jartzea, besteen artean egonkortze prozesuak.

- Lan Eskaintza diseinatzerako garaian, departamentuen arteko banaketa proportzional bat egiten saiatu da, departamentu bateko langile guztiak eskaintza berdinean ez sartzeko helburuarekin.

- Baita ere, mota guztietako prozesuak egotea proposatu da, hau da, barne sustapen, egonkortze prozesuak, hautaketa irekiak eta kontsolidazio prozesuak, proportzionaltasuna eta oreka mantentzeko.

Zentzu horretan, 2020ko Lan Eskaintza Publikoa ordezkari sindikalekin bilerak egitea proposatzen da.

VII.- Bestalde, azpimarratu beharra dago Lan Eskaintza Publikoan aipatu diren lanpostu eta plaza guztiek aurrekontu-zuzkidura dutela udal aurrekontuetan.

Horregatik guztiagatik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udaleko 2020ko ekitaldiko LAN ESKAINTZA PUBLIKOA onartzea, honen arabera:



TOLOSAKO
UDALA

1.- KARRERAKO FUNTZIONARIOAK: BARNE SUSTAPENA

1.- IZENA: Udateko administraria

ESKALA: Administrazio Orokorra
AZPIESKALA: Administraria
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 2
TXANDA: barne sustapena
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposaketa

2.- IZENA: kiroletako administraria

ESKALA: Administrazio Orokorra
AZPIESKALA: Administraria
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: barne sustapena
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposaketa

3.- IZENA: Errenta administraria

ESKALA: Administrazio Orokorra
AZPIESKALA: Administraria
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: barne sustapena
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposaketa

4.- IZENA: kontratazioko administraria

ESKALA: Administrazio Orokorra
AZPIESKALA: Administraria
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: barne sustapena
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposaketa

2.- PLAZAK HORNITZEA (ENPLEGUA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEA)

1.- IZENA: AOT partaidetza, gardentasuna eta datuen babeserako delegatua

ESKALA: Administrazio Orokorra



TOLOSAKO
UDALA

AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE, derrigorrezkoa.
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: librea
HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposaketa, enplegua egonkortzeko jardunbidea.

2.- IZENA: Etxebizitza eta ondare kudeaketarako teknikaria

ESKALA: Administrazio Orokorra
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

3.- IZENA: Berdintasun teknikaria (II)

ESKALA: Administrazio Orokorra
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

4.- IZENA: informatikaria

ESKALA: Administrazio Berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

5.- IZENA: ingeniari teknikoa

ESKALA: Administrazio Berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea



TOLOSAKO
UDALA

6.- IZENA: ingurumen eta landa eremuko teknikaria

ESKALA: Administrazio Berezia

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A2

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbide

7.- IZENA: liburuzaina

ESKALA: Administrazio Berezia

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A2

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbide

3.- PLAZAK HORNITZEA (LIBREA)

1.- IZENA: Hirigintzako AOT

ESKALA: Administrazio orokorra

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A1

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa.

2.- IZENA: Kultur kudeaketarako teknikaria

ESKALA: Administrazio orokorra

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A2

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa.

3.- IZENA: Peioak (4)

ESKALA: Administrazio Berezia

AZPIESKALA: Zerbitzu Bereziak

SAILKAPEN TALDEA: E

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 1. HE derrigortasun gabe



TOLOSAKO
UDALA

LANPOSTU KOPURUA: 4

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa.

4.- IZENA: Hirigintza, obra eta zerbitzuetako Burua

ESKALA: Administrazio Berezia

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A1

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa.

5.- IZENA: Garapen eko, Tur, Merkta, Azoak eta Enpl sust. Burua

ESKALA: Administrazio Orokorra

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A1

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa.

6.- IZENA: Udaltzaina

ESKALA: Administrazio berezia

AZPIESKALA: Zerbitzu bereziak

SAILKAPEN TALDEA: C1

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 2. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa.

BIGARRENA.- 2020 ekitaldiko Lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri ematea Kontuhartzaitza Sailari eta Udaleko langileen ordezkari.



3. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA HITZARMEN HONI: UZTURRE KALEKO 10EAN DAGOEN PARTZELAREN JABEEKIN HITZARMEN URBANISTIKOA, UZTURRE KALEAREN BERRANTOLAKETA ETA HOBEKUNTZAREN ONDORIOZKO LUR-LAGAPENEN OINARRIAK EZARTZEN DITUENA.

Aurrekariak

2017ko uztailaren 18an, Igor Ellacuria Santosek obra baimena eskatu zuen Uzturre kaleko 10ean kokatzen den partzelako familia bakarreko etxebizitza eraitsi eta berri bat eraikitzeko.

2017ko irailaren 15eko 1588/2017 Alkatetza-Dekretuaren bidez obra baimena eman zitzaien Igor Ellacuriari, baimenean ezarritako baldintza orokor eta partikularren baitan, eta horietan azpimarragarria da laugarren baldintza partikularra:

- 4. Hitzarmen bat sinatzea Udala eta jabeen artean, "5.3 Uzturre kalea" azpiesparruarekin lotutako obrak egiteko behar diren lurak dohain emateko. Adibide gisa hartuko da Uzturre 8ko jabeekin 2008 urtean egindako hitzarmena.*

Hitzarmenaren jatorria ulertzeko, Uzturre kaleko 8ko jabeekin 2008ko irailaren 30ean sinatutako hitzarmena hartzen da erreferentziatzat. Aurreikusten da Uzturre kalea irekiko dela, dagozkion zerbitzuak jarriz bertan, egitekoa den urbanizazio proiektuak xedatutako baldintzetan. Urbanizazio kargak "5.2 Antzinako erruki-etxea" eta "5.3 Uzturre kalea" azpiesparruei egozten zaizkie, baina posible da Uzturre kalearen urbanizazioak kale horretan kokatzen diren kontsolidatutako partzeletan eragina izatea; partzela horien lursail batzuen lagapena behar izatea, alegia.

Igor Ellacuriak obrak gauzatu ditu eta obra amaierako dokumentazioa ekarri du. Ondorioz, 2019ko abenduaren 13an, udal arkitektoak lehen okupaziorako baimena informatu du, adieraziz obra amaierako dokumentazioa ondo dagoela, baina aurrez aipatutako laugarren puntuko hitzarmena sinatzea falta dela.

Goian adierazitakoagatik, Gobernu Batzarrak, 2020ko martxoaren 18ko akordioaren bidez, erabaki zuen hasierako onespena ematea hitzarmen honi: "Uzturre kaleko 10ean dagoen partzelaren jabeekin Uzturre kalearen berrantolaketaren eta hobekuntzaren ondoriozko lur-lagapenen oinarriak ezartzeko hitzarmena".

Jendaurreko informazioan ez da alegaziorik izan.

Hitzarmenean aldaketak txertatzea

Alegaziorik izan ez den arren, udal zerbitzu teknikoek egoki ikusi dute hitzarmenaren testuan zuzenketa bat txertatzea ofizioz, hain zuzen ere, laga behar den metro karratuei erreferentzia egiten dien zuzenketa bat. Hala, hitzarmeneko estipulazioen lehenengo puntuan, honela zioen:

- *Tolosako Udalaren esku jartzea Uzturre kalea berrantolatzeko, urbanizatzeko eta hobetzeko proiektuak ukitzen dituen bere jabetzako lurak, eskatzen den unean.*



TOLOSAKO
UDALA

Eta honako hau esan behar du:

- *Tolosako Udalaren esku jartzea bere jabetzakoa den Uzturre 10eko lursailean kokatzen diren 25 m². (II. eranskinean jasotako planoan agertzen den moduan) eta kalterik egin gabe HAPOko "5.2 Antzinako erruki-etxea" eta "5.3 Uzturre kalea" azpiesparruen garapen urbanistikoaren ondorioz egingo den urbanizazio proiektuari.*

Bestetik, hitzarmenaren testuan beste aldaketa batzuk ere txertatu dira, esanguratsuak ez direnak funtsari dagokionez, testuaren zuzenketari dagozkionak baizik.

Oro har, txertatutako aldaketak ez dira esanguratsuak edo funtsezkoak, eta, beraz, prozedurak aurrera jarrai dezake.

Zuzenbide oinarriak

Hitzarmen honek hirigintza-egikaritzeko hitzarmen izaera du, indarrean dagoen plangintza kudeatu eta egikaritzeko zehaztapenak eta baldintzak finkatzeko, hain zuzen ere. Honela, Uzturre kalea urbanizatzen denean Uzturre kalean kontsolidatutako partzelen lagapenen bat behar bada, hori ahalbidetuko duten baldintzak adostea da hitzarmenaren xedea.

Aplikatu beharreko araubide juridikoa honako hau da: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 9.8, 25.1, 18.1-c) eta 61. artikulua. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa; 7. xedapen gehigarria.

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 7. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, toki entitateek hitzarmen urbanistikoak sina ditzakete pertsona publiko zein pribatuekin —jabe izan edo ez—, hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko.

Prozedurari dagokionez, Udalari dagokio hitzarmenak onartzea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hitzarmenaren testua osorik, eta gutxienez hogeit hamar eguneguz jendaurrean egongo da, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Aurrekarietan jada adierazi den moduan, jendaurreko epean ez da alegaziorik izan.

Udal antolamenduaren barruan, **Alkatetzari dagokio gai hori ebaztea**, bat etorritik 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letran jasotakoarekin, baina Alkatetzak 2019ko uztailaren 16ko 2019/1228 Dekretuan eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zion.

Horregatik guztiagatik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



TOLOSAKO
UDALA

LEHENA.- Behin betiko onespena ematea Uzturre kaleko 10ean kokatzen den partzelari dagokion eta aldaketak txertatu zaizkion Hitzarmen Urbanistikoari, partzelaren jabeak diren Igor ELLACURIA SANTOS eta Amaia PAGOLA OLANOrekin sinatu beharrekoari.

Hitzarmenak honela dio:

HIRIGINTZA-HITZARMENA

Tolosan, 2020ko...

Hirigintza-hitzarmena Uzturre kaleko 10ean dagoen partzelaren jabeekin, Uzturre kalearen berrantolaketa eta hobekuntzaren ondoriozko lur-lagapenaren oinarriak ezartzen dituena.

Convenio urbanístico con la propiedad de la parcela de la calle Uzturre 10, para establecer las bases para la cesión de terrenos derivada de la reorganización y mejora de la calle Uzturre.

BILDURIK

REUNIDOS

ALDE BATETIK, Olatz Peon Ormazabal andrea, adinez nagusia.
Hitzarmen honetarako helbidea: Plaza Zaharra 6A. Tolosa. Gipuzkoa.

DE UNA PARTE: Doña Olatz Peon Ormazabal, mayor de edad, y con domicilio a efectos del presente acuerdo en Plaza Zaharra 6A de Tolosa (Gipuzkoa).

Tolosako Udaleko alkate den aldetik dihardu ekintza honetan, eta horretarako ahalmena du(e)an Tokiko Gobernu Batzarrik hartutako erabakiaren bidez.

Actúa en su condición de alcaldesa del Ayuntamiento de Tolosa, facultada para este acto mediante acuerdo de la Junta de Gobierno de

BESTETIK, Igor Ellacuria Santos jauna, adinez nagusia.
NAN: 78884835X.
Jakinarazpenetarako helbidea: San Joan plaza 2, 2. C. Tolosa. Gipuzkoa.

DE LA OTRA: Don Igor Ellacuria Santos, mayor de edad, con D.N.I. nº 78884835X y domicilio a efecto de notificaciones en San Joan plaza 2, 2º C de Tolosa (Gipuzkoa), CP 20400.

Eta Amaia Pagola Olano andrea, adinez nagusia.
NAN: 72453409M.
Jakinarazpenetarako helbidea: San Joan plaza 2, 2. C. Tolosa. Gipuzkoa.

Doña Amaia Pagola Olano, mayor de edad, con DNI 72453409M, y domicilio a efecto de notificaciones en San Joan plaza 2, 2º C de Tolosa (Gipuzkoa), CP 20400.

Beren izenean eta eskubidean dihardute.

Actúan en su propio nombre y derecho.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eta sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Ambas partes se reconocen mutua capacidad para formular y suscribir el presente convenio, y con ese fin

ADIERAZTEN DUTE

MANIFIESTAN

1.- 2017ko uztailaren 18an, Igor Ellacuria **1.-** El 18 de julio de 2017, Don Igor Ellacuria



Santos jaunak lizentzia eskatu zuen Tolosako Udaletxean, Uzturre kaleko 10. zenbakian dagoen familia bakarreko etxebizitza bat eraisteko eta berreraikitzeko.

Santos solicitó en el Ayuntamiento de Tolosa licencia para el derribo y reconstrucción de una vivienda unifamiliar sita en Uzturre kalea 10.

2.- Igor Ellacuria jaunak eta Amaia Pagola andreak erregistro-finka honen jabetza dute, zeina honela deskribatuta dagoen:

2.- Don Igor Ellacuria y Doña Amaia Pagola tienen la propiedad de la siguiente finca registral que cuenta con la siguiente descripción:

.- Hiri-lurra: Tolosako Uzturre kaleko hamargarren zenbakia duen etxea, bere lursailarekin. Bere perimetroaren barruan laurehun eta hogeita hamalau metro eta hogeita bost dezimetro koadro ditu. Mugak: mendebaldera edo aurrealdera, CC bidearekin; eskuinera edo hegoaldera, Antonio Urreta jaunak eskuratutako B finkarekin; ezkerrera edo iparraldera, DD bidearekin, eta hondoan, ekialdera, Tolosako Udalarena den hamar lotearekin. Lursail horren erdian dago eraikita etxea, eta laurogeita hamar metro koadroko orubea hartzen du, eta sotoa du, solairuaren erdia baino gehixeago hartzen duena, eta goiko solairu bat, logelatan banatua. Alde guztietatik mugakide du lehen deskribatutako lursaila, zeina ate aurreko eta baratzeko osagarri gisa geratzen den. Lursail horretako baratzean pabiloi txiki bat eraiki zen, eta alde guztietatik lursail horrekin egiten du muga.

.- Urbana: casa señalada con el número diez de Uzturre kalea de Tolosa, con su terreno. Contiene dentro de su perímetro cuatrocientos treinta y cuatro metros y veinticinco decímetros cuadrados, confina al Oeste o frente, con el camino CC; derecha entrando o Sur, con la finca B adquirida por Don Antonio Urreta; izquierda o Norte, con el camino DD, y fondo, que es Este, con el lote diez, propio del Ayuntamiento de Tolosa. Casa edificada en el centro de dicho terreno, ocupa un solar de noventa metros cuadrados y consta de sótano el cual ocupa algo más que la mitad de la planta y de un piso alto dividido en habitaciones, linda por todos sus lados con el terreno antes descrito el que queda como accesorio suyo en calidad de antepuertas y huerta. En el terreno huerta de esta finca se construyó un pequeño pabellón que confina por todos sus lados con dicho terreno."

Jabetza-erregistroaren oharra gehitu da 1. eranskin gisa.

Se adjunta como Anexo 1 nota del registro de la propiedad.

3.- 2017ko irailaren 15eko 1588 Dekretuaren bidez, obrak hasteko baimena eman zien Udalak, ezarritako baldintza orokor eta partikularren arabera, eta laugarren baldintza partikularra nabarmendu zen, honako hau ezartzen baitzuen:

3.- Por Decreto nº 1588, de 15 de septiembre de 2017, se autorizó el inicio de las obras con arreglo a las condiciones generales y particulares establecidas, destacándose la condición particular cuarta, donde se establece lo siguiente:

"4.- Hitzarmen bat sinatzea Udalaren eta jabeen artean, "5.3 Uzturre kalea" azpiesparruarekin lotutako obrak egiteko behar diren lurak dohain emateko. Adibide gisa hartuko da Uzturre 8ko jabeekin 2008. urtean egindako hitzarmena".

"4.- La firma de un convenio entre el ayuntamiento y los propietarios para la transmisión gratuita de los terrenos necesarios para la ejecución de las obras asociadas al subámbito 5.3 "Calle Uzturre. Se tomará como ejemplo el convenio firmado en 2008 con los propietarios de Uzturre 8"

4.- 2008an formalizatutako hitzarmena Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu aurretik egin zen, eta haren tramitean,

4.- El convenio formalizado en el año 2008 se realizó con carácter previo a la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación



Uzturre kalean dauden familia bakarreko eraikinak finkatzeko eskatu zen, kale hori berrantolatzeko eta hobetzeko **behar ziren lursailak** lagatzeko konpromisoarekin.

Urbana de Tolosa, en cuyo trámite se solicitó la consolidación de las edificaciones unifamiliares existentes en la calle Uzturre, con el compromiso de **ceder los terrenos precisos** para la reordenación y mejora de la mencionada calle.

5.- Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 3an hartutako erabakiaren bidez, Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Testu Bategina onartu zuen (GAO, 60. zk., 2009ko martxoaren 31koa), eta horren barruan dago Uzturre kaleko 10. zenbakian dagoen eraikuntza, "5. ARRAMELE-ARKAUTE" hirigintza-esparruan.

5.- Por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, de fecha 3 de marzo de 2009, se aprobó el Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa (BOG n.º 60, de 31 de marzo de 2009), en la que está incluida la edificación sita en el número 10 de la calle Uzturre en el ámbito Urbanístico "5. ARRAMELE-ARKAUTE".

6.- "5. ARRAMELE-ARKAUTE" hirigintza-esparruaren hirigintza-fitxan, zehazki, C atalean, Uzturre kaleko urbanizazioari buruzkoan, ezartzen da urbanizazioa egikaritzea eta haren kostua ordaintzea "5.2 Antzinako erruki-etxea" eta "5.3 Uzturre kalea" azpiesparruko jabeei jasanarazi behar zaiela, eta karga gisa sartu behar dela dagozkien birpartzelazio-proiektuetan.

6.- En la ficha urbanística del ámbito urbanístico "5. ARRAMELE-ARKAUTE", en concreto en el apartado C, referido a la urbanización de la calle Uzturre, se establece que la ejecución de la urbanización y abono de sus costes debe repercutirse entre los propietarios de los subámbitos "5.2 Antigua Misericordia" y "5.3 Calle Uzturre", debiendo incorporarlo como carga en los respectivos proyectos de parcelación.

7.- Ondorioz, hitzarmen honen xedea da, batetik, betetzea 2017ko irailaren 15eko 1588 Dekretuan ezarritako baldintza, eta, bestetik, oinarriak ezartzea Plan Orokorreko proposamenak egikaritzeko behar diren lursailen lagapena egiteko, hain zuzen ere, Uzturre kalearen berrantolaketan eta urbanizazioan aipatzen diren proposamenak egikaritzeko.

7.- En consecuencia, es objeto del presente convenio dar cumplimiento a la condición establecida en el Decreto nº 1588, de 15 de septiembre de 2017 y establecer las bases para la cesión de los suelos que posibiliten la ejecución de las propuestas del Plan General, en concreto las referidas a la reordenación y urbanización de la calle Uzturre.

Azaldutako guztiagatik, bi aldeek egokitzen dute hitzarmen hau formulatzea eta sinatzea, estipulazio hauek oinarri hartuta:

Por todo lo expuesto, ambas partes han estimado conveniente la formulación y suscripción de este convenio en base a las siguientes

ESTIPULAZIOAK

ESTIPULACIONES

LEHENENGOA.- Igor Ellacuria jaunak eta Amaia Pagola andreak adierazi dute ados daudela aurreko epigrafeetan azaldutako aurreikuspen eta irizpideekin, bai eta horien ondoriozko eragin eta ondorioekin ere, beren jabetzako lursailen hirigintza-araubidea zehazteari dagokionez, eta honako konpromiso hauek hartu dituzte:

PRIMERA.- Don Igor Ellacuria y Doña Amaia Pagola manifiestan su conformidad con las previsiones y los criterios expuestos en los epígrafes anteriores, así como con el conjunto de las afecciones y consecuencias derivadas de los mismos, en lo referente a la determinación del régimen urbanístico de los terrenos de su propiedad, y se comprometen a lo siguiente:



TOLOSAKO
UDALA

- Tolosako Udalaren esku jartzea bere jabetzakoa den Uzturre 10eko lursailean kokatzen diren 25 m² (II. eranskinean jasotako planoan agertzen den moduan) eta kalterik egin gabe HAPOko "5.2 Antzinako erruki-etxea" eta "5.3 Uzturre kalea" azpiesparruen garapen urbanistikoaren ondorioz egingo den urbanizazio proiektuari.
- Tolosako Udalari baimena ematea – hark hala behar duenean– beharrezkoak diren eta bere jabetzako lursailei eragiten dieten obrak egin ditzan, Uzturre kalea hobetzeko eta berrantolatzeko.
- Uzturre kalea hobetzeak, berrantolatzeak eta urbanizatzeko ukitutako lurren jabetza eskualdatzea eskritura publikoan formalizatuko da hilabete bateko epean, Tolosako Udalak hala eskatzen duenetik kontatzen hasita. Eskualdatze horren formalizazio-kostuak Tolosako Udalak ordainduko ditu, eta Udalak, urbanizazio-kostu gisa, 5.2 "Antzinako erruki-etxea" eta 5.3 "Uzturre kalea" azpiesparruei jasanaraziko dizkie.
- Jabetzaren eskualdaketa, nolahi ere, doakoa izango da, bai Tolosako Udalarentzat, bai 5.2 "Antzinako erruki-etxea" eta 5.3 "Uzturre kalea" azpiesparruetako jabeentzat.
- Poner a disposición del Ayuntamiento de Tolosa los 25 m² del terreno de Uzturre 10 (de acuerdo con el plano del anexo II) y sin perjuicio del proyecto de urbanización de la calle Uzturre que se llevará a cabo como consecuencia del desarrollo urbanístico de los subámbitos "5.2 Antigua Misericordia" y "5.3 Calle Uzturre" del PGOU de Tolosa.
- Autorizar al Ayuntamiento de Tolosa –cuando éste lo precise– a llevar a cabo las obras de ejecución que sean precisas y que afecten a los terrenos de su propiedad para la mejora y reordenación de la calle Uzturre.
- La transmisión de la propiedad de los terrenos afectados por la mejora, reordenación y urbanización de la calle Uzturre, se formalizará en escritura pública en el plazo de un mes, desde que el Ayuntamiento de Tolosa así lo requiera. Los costes de formalización de dicha transmisión serán abonadas por el Ayuntamiento de Tolosa, quién repercutirá, como coste de urbanización, a los subámbitos 5.2 "Antigua misericordia" y 5.3 "Calle Uzturre".
- La transmisión de la propiedad se realizará, en todo caso, con carácter gratuito, tanto para el Ayuntamiento de Tolosa como para los propietarios de los subámbitos 5.2 "Antigua misericordia" y 5.3 "Calle Uzturre".

BIGARRENA.- SUBROGAZIOA.

Hitzarmen honen bidez hartutako betebeharrak eta konpromiso guztiak hitzarmen honek ukitzen dituen partzelen titulartasunari lotuta daude eta berez dagozkio hari.

Ildo horretan, finakaren bat eskualdatuz gero, hirugarren eskuratzailerak betebeharrak eta konpromiso horietan subrogatuta dagoela ulertuko da, eta inguruabar hori esanbidez agerrarazi beharko da finakaren ondorioz ematen

SEGUNDA.- SUBROGACIÓN.

La totalidad de las obligaciones y compromisos adquiridos mediante el presente Convenio se consideran vinculados e inherentes a la titularidad de las parcelas afectadas por el mismo.

En este sentido, en caso de transmisión de alguna de las fincas, el tercer adquirente se entenderá subrogado en dichas obligaciones y compromisos, y deberá hacerse constar expresamente esta circunstancia en los



TOLOSAKO
UDALA

diren agiri pribatu eta publikoetan.

documentos privados y públicos que se otorguen con ocasión de la misma.

HIRUGARRENA.- FORMALIZAZIOA ETA JURISDIKZIOA.

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du. Ondorioz, hitzarmen horretatik, hura betetzetik edo ez betetzetik, aldatzetik eta suntsiaraztetik sortzen diren auzigai guztiak Tolosako Udalak ebatziko ditu. Haren ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, horretarako emanda dagoen legeria arautzailean aurreikusitako moduan.

Eta horrela jasota gera dadin, azalduko guztiaren egiazkotasuna eta harekiko adostasuna frogatzeko, bi aldeek hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

TERCERA.- FORMALIZACIÓN Y JURISDICCIÓN.

El presente convenio tiene carácter jurídico-administrativo. Todas las cuestiones litigiosas que surjan del mismo, de su cumplimiento o incumplimiento, modificación o resolución, serán resueltas por el Ayuntamiento de Tolosa, cuyas resoluciones pondrán fin a la vía administrativa, y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en los términos previstos en la legislación reguladora al efecto.

Y para que así conste, en prueba de la veracidad y conformidad con cuanto expuesto queda, lo firman las partes, por triplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

*Olatz Peon Ormazabal
Tolosako alkatea*

Igor Ellacuria Santos

Amaia Pagola Olano

BIGARRENA.- Udaleko alkate-lehendakariari ahalmena ematea Udalaren izenean aipatutako hitzarmena eta hura gauzatzeko beharrezko dokumentu guztiak izenpetzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunei, eta adieraztea hamar eguneko epean sinatu behar dutela hitzarmena.

4. ONARTZEA GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREKIN HITZARMENA SINATZEA, TOLOSAKO GERNIKAKO ARBOLA LORATEGIAK EREMUKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO-OBRAK EGITEKO.

Gernikako Arbola Lorategiak urbanizatzeko obretan aurreikusten dira hainbat lan Gipuzkoako Urak egin behar dituenak, ur-saneamendu eta ur-hornidura sareen berrikuntzako lanak, hain zuen ere.



TOLOSAKO
UDALA

Aurrekoetan horrelako lanak egiteko, Gipuzkoako Ur kontsortzioarekin hitzarmenak sinatu dira eta, horien ondorioz, Tolosako Udalak egiten zituen obra guztiak eta, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak erakundeak ordaindu egiten zizkion Tolosako Udalari ur-saneamendu eta ur-horniduraren lanei zegozkien kopuruak.

Hala ere, azkeneko obretan egin den moduan, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, 31. artikuluan emandako ahalmenez baliatuta, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak Gernikako Arbola Lorategiak urbanizatzeko lanak kontratatzeke jardunbide bateratua garatuko dute, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.

Sistema honek hobeto bermatzen ditu erakunde bakoitzaren betebeharrak eta ardurak, erakunde bakoitza bere kontratuaren jabe izango baita, nahiz eta kontratazio jardunbidea bide bateratutan eramango duen Tolosako Udalak, izan ere, Udalak egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa dute.

Beraz, akordio hau hartzea proposatzen da

I.- AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2006ko azaroaren 28an, erabaki zuen uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren bitartez jarraitzea. Hitzarmenean, Aguas de Gipuzkoa –Gipuzkoako Urak, SArekin dagokion kudeaketa-agindua onartzea hitzartu zuten bi aldeek.

Akordio horren bitartez. Gipuzkoako Ur Partzuergoak Tolosako udalerrian, 3.350.000,00 € (BEZa barne) inbertitzeko konpromisoa hartu zuen hitzarmena sinatu eta hurrengo hamabost urteetan, ur-saneamendu eta ur-hornidura dagokienez.

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak azken urtetan sinatu dituzte hitzarmenak, hainbat urbanizazio obretako ur-saneamendu eta ur-horniduraren kostuak Gipuzkoako Urak bere gain har ditzan.

Ikusirik Udalak egin behar dituen obrak egiteko kaleko zorua altxatu behar dela, momentu egokia da ur-saneamendu eta ur-hornidura aldatzeko.

Gainera, San Esteban auzotik datorren ur emari handia banatu eta Adunako EDARrera iritsi ez dadin, ezinbestean, Gernikako saneamendua gauzatu aurretik, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Gernikako Arbolaren eta Triangulo plazaren arteko saneamendua esleitu eta obra gauzatu behar du.

Gipuzkoako Urak egokitzen hartuko du Udalak egindako proiektua.



II.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Lehena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL), 31. artikuluan, sektore publikoko erakundeen arteko kooperazio horizontala zein bertikala arautzen ditu, ondoko hau xedatuz:

31. artikulua. Auto-antolaketarako ahalmena eta lankidetzak publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.

1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetako batean, lankidetzak horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:

a) Lankidetzak bertikaleko sistemen bitartez, alegia, bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz botere adjudikatzailleentzat 32. artikuluan eta botere adjudikatzaillearen izaera ez duten sektore publikoko enteentzat 33. artikuluan ezarritako zentzuarekin eta mugekin, beren burua antolatzeko ahalmenaz baliatuta, kasuan kasuko mandatu-akordioaren bitartez.

b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzak horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek, nolana ere, berariazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute.

3. Kontratazio-prozedura bat bere osotasunean hainbat erakunde beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango da beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.

Kontratazio-prozedura bat erakunde interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eramaten dituzten atalei dagokienez izango da erakunde horiena guztiena erantzukizuna. Erakunde bakoitza bere betebeharrak betetzearen erantzule bakarra izango da bere izenean eta bere kontura aurrera eramaten dituen ataletan.

SPKLren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Urak SAK botere esleitzaillearen izaera du. Izan ere:

- Sozietate honen akziodun bakarra Gipuzkoako Ur Partzuergoa da akzioen %100arekin,
- Bere xedea ur-hornidurako eta saneamenduko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena da.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoak bere jardura kontrolatzen eta zuzentzen du.

Beraz, ikusita Tolosako Udala eta Gipuzkoako Urak SA sektore publikoko entitateak direla, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta **hitzarmenen bidez, kontratazio**



TOLOSAKO
UDALA

jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko. Kasu horretan, 31. artikulua 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.

Bigarrena.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste, udal eskumenerako zerbitzuak emateko, toki administrazioaren eta gainontzeko administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du. Lankidetzak hori dagokion hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Kasu honetan, Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko obrak kontratatze eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak izenpetzen duten hitzarmena kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa, Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47., 48., 49., 50., 51., 52., eta 53. artikuluetan xedaturikoa izango da.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna zehazteko, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, eta 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, zehazten dutena izan beharko da kontuan. Hitzarmenaren xedea, obra-kontratu bat denez, kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena alkate-lehendakariarena da. Hala ere, 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zizkion hainbat eskumen, horien artean lankidetzak-hitzarmenak; beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.**

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Gipuzkoako Urak erakundearekin hitzarmena sinatzea, Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko lanak modu bateratuan egiteko.

Hitzarmena hau da :



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO URAK SAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Tolosan, 2020ko urriaren XXan

BILDURIK

OLATZ PEON ORMAZABAL andrea., Tolosako udaleko alkate-lehendakaria

IÑIGO ELOSEGI VALLEJO jauna., Gipuzkoako Urak Saren ordezkaria

Egintza honetan fede ematen du Tolosako Udaleko idazkari Begoña Garmendia Vazquezek.

ESKU HARTU DUTE

Iñigo Elosegi jaunak, bere jarduneko kargua betez, Gipuzkoako Ur Partzuergoaren berriarazko baliabidea den GIPUZKOAKO URAK SAREN izenean eta hura ordezkatzuz. Ordezkaritza hori egiaztatu du Donostiako notario Juan Aurelio Lazaro Perez jaunaren aurrean 1994ko martxoaren 1ean emandako ahalordetze-eskriuraren bitartez – protokoloaren 535 zenbakia du—.

Olatz Peon Ormazabal andreak, bere jarduneko kargua betez, Tolosako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 6an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 2. dokumentu gisa.

AURREKARIAK

LEHENA.- Tolosako Udalak, 2006ko azaroaren 28an, erabaki zuen uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren esku jartzea. Hitzarmenean, Aguas de Gipuzkoa – Gipuzkoako Urak SAREkin dagokion kudeaketa-agindua onartzea hitzartu zuten bi alderdiek.

BIGARRENA.- Akordio honen bitartez Gipuzkoako Ur kontsorzioak Tolosako udalerrian, 3.350.000,00 € (BEZa barne) inbertitzeko konpromisoa hartu zuen hitzarmena sinatu eta hurrengo hamabost urteetan.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak, 2020ko urriaren 15eko 2020/1659 Alkatetza Dekretuaren bidez, Gernikako Arbola lorategiaren urbanizazioa jasotzen duen proiektua onartu zuen. Exekuzio-Proiektua GIRDER INGENIEROS enpresak idatzi du.

Proiektu horren barne, ur-saneamendu eta ur-hornidura sareen berrikuntzako lanak aurreikusten dira. Lan horiek, aurrez aipatutako hitzarmenaren arabera, Ur Kontsortzioko berriarazko baliabidea den Gipuzkoako Urak SA enpresa publikoak exekutatu behar ditu, baina, zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, ezin dira banatu kalearen berrurbanizazioaren lanekin, eta, ondorioz bi obra aldi berean gauzatu behar dira, alegia, Tolosako Udalaren eskumeneko lanak eta Ur Kontsortzioari dagozkionak.



Gipuzkoako Urak Saren ordezkariak, bere aldetik, aipatu diren lanak 2020. urteko inbertsioen egitasmoaren barruan daudela azaldu du.

LAUGARRENA.- Hitzarmen hau izenpetzen duten ordezkarien aburuz, Gernikako Arbola lorategian exekutatu beharreko lanak era koordinatuan gauzatu behar dira, orain arte izan diren esperientzietan oinarriturik. Halaber, exekutatu behar diren obra guztiak aldi berean gauzatu gero, herritarrek jasango dituzten eragozpenak murriztu egingo dira. Ez da ahaztu behar, era berean, eremu horretan merkataritza-jarduera ugari garatzen direla, eta ezinbestekoa da berrmatzea obren exekuzioa ahalik eta azkarren gauzatu dela. Azkenik, bi obra batera exekutatuta, xede horretara atxikiko diren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuko dira, efizientzia eta eraginkortasuna hobetuz. Arrazoi horienatik, hemen agertzen diren ordezkariak onartu dute bi erakundeen arteko kooperazioa jasotzen duen lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea, xede honekin:

- Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko lanak egiteko kontratazio jardunbide bakarra gauzatuko dute Tolosako udalak eta Gipuzkoako Urak SAK. Horretarako, Gipuzkoako Urak SAK ezinbestekoa den ahalmena ematen dio Tolosako Udalarari obren kontratazio-jardunbidea izapide dezan, obren esleipenduna proposatu arte.
- Erakunde bakoitzaren organo eskudunak dagokion obren adjudikazioa ebatziko du, eta kontratua izenpetuko du. Beraz, bi kontratu izenpetuko dira, bata, Tolosako Udalak, eta, bestea, Gipuzkoako Urak SAK, bakoitzari dagokion obraren arabera.
- Erakunde bakoitzeko organo eskudunak izango du bere kontratuaren exekuzio, harrera eta likidazioaren ardura.
- Obrak finantzatzeko irizpideak adostuko dituzte bi erakundeek eta dokumentu honetan islatuko dituzte.
- Hitzarmen honetan xedatzen den kooperazio esparruaren jarraipena egiteko, batzorde bat eratuko dute bi erakundeek

BOSGARRENA.- *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikulua sektore publikoko erakundeen arteko kooperazio horizontala zein bertikala arautzen ditu eta honako hau xedatzen:*

31. artikulua. *Auto-antolaketa-ahalmena eta lankidetzaren publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.*

1. *Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetako batean, lankidetzaren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:*

a) *Lankidetzaren bertikaleko sistemen bitartez, alegia, bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz botere adjudikatzaileentzat 32. artikuluan eta botere adjudikatzailearen izaera ez duten sektore publikoko enteentzat 33. artikuluan ezarritako zentzuarekin eta mugekin, beren burua antolatzearen ahalmenaz baliatuta, kasuan kasuko mandatu-akordioaren bitartez.*

b) *Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.*

2. *Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek, nolahi ere, berriazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute.*

3. *Kontratazio-prozedura bat bere osotasunean hainbat erakundek beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango da beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.*

Kontratazio-prozedura bat erakunde interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eraman dituzten atalei dagokienez izango da erakunde horiena



TOLOSAKO
UDALA

guztiena erantzukizuna. Erakunde bakoitza bere betebeharrak betetzearen erantzule bakarra izango da bere izenean eta bere kontura aurrera eramaten dituen ataletan.

SPKLren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Urak SAK **botere esleitzailerearen izaera du**. Izan ere:

- Sozietate honen akziodun bakarra Gipuzkoako Ur Partzuergoa da akzioen %100arekin,
- Bere xedea ur-hornidurako eta -saneamenduko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena da.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoak bere jarduera kontrolatzen eta zuzentzen du.

Beraz, ikusita Tolosako Udala eta Gipuzkoako Urak SA sektore publikoko entitateak direla ikusita, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta **hitzarmenen bidez, kontratazio jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko. Kasu horretan, 31. artikulua 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.**

SEIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste, udal eskumeneko zerbitzuak emateko, toki administrazioaren eta gainontzeko administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du. Lankidetzak hori dagokion hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Kasu honetan, Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko obrak kontratatze eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak izenpetzen duten hitzarmena kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa, Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47., 48., 49., 50., 51., 52., eta 53. artikuluetan xedaturikoa izango da.

ZAZPIGARRENA.- Bi erakundeen arteko kooperazio esparruaren araubidea argitu ondoren, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAK hitzarmen hau sinatzen dute, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko lanak kontratatze jardunbide bateratua garatzeko, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.

Kontuan izanda Tolosako Udalak egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa dutela, bi aldeek onartzen dute Tolosako Udalak izapidetuko duela Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko lanen kontratazio espedienteak, eta Tolosako Udalak aztertuko dituela eskaintzak eta obren adjudikazioa proposatuko duela.

Hala ere, obra kontratua bitan banatuko da, alde batetik, Gipuzkoako Urak SAK, bere gain hartuko ditu ur-saneamenduko eta ur-hornidurako obrak egitea eta ordaintzea, eta, bestetik, gainontzeko obrak Tolosako Udalak hartuko ditu bere gain.

Obra proiektua Girder Ingenieros, S.L. enpresak egin du, eta Gipuzkoa Urak SA enpresak onartu egiten du eta ontzat ematen du egindako proiektua.

Beraz, bi erakundeetako ordezkariak



HITZARTU DUTE

LEHENA.- Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAK onartzen dute Tolosako Udalak izapidetuko dituela Tolosako Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko obrak, GIRDER INGENIEROS enpresak egindako proiektuaren arabera.

Gipuzkoako Urak SAK ontzat ematen du proiektu hori. Nolanahi ere, aurreikusten diren lan guztiak bat etorriko dira Gipuzkoako Bajako Sareari buruzko Araudi Teknikoak eta aplikatu beharreko araudiak xedatzen dituzten eskakizunekin, eta, ondorioz, nahiz eta projektuan jasotako ur-hornidurako eta saneamenduko lanak ontzat ematen diren, edozein kasutan, aipatutako araudiak bete beharko dira.

Halaber, Gipuzkoako Urak S.A.k bere adostasuna adierazten du Tolosako udalak onarturiko Baldintza Administrazioen Pleguarekin eta Preskripzio Teknikoen Orriarekin.

Kontratua esleitzeko jardunbidea SPKLn xedaturikoarekin bat etorriko da. Hortaz, **jardunbide irekia** erabiliko da, SPKLn aurreikusitakoari jarraikiz. Halaber, eskaintzak balioesteko eta ekonomikoki abantailatsuen den eskaintza zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide erabiliko dira, SPKLren 145. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz. Azkenik, espedientearen izapidetzea **ohikoa** izango da.

Ondorioz, Tolosako udalak ondorengo eskumenak izango du kontratua esleitzeko:

- Baldintza Administrazioen Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria onartu.
- Kontratazio-espedientea onartu.
- Lizitazioa abian jarri.
- Iragarkiak egin.
- Kontratazio-mahaia osatu.
- Eskaintzak aztertu eta baloratu, bai teknikoki, bai ekonomikoki, Pleguetan xedatutakoaei jarraituz.
- Esleipen proposamena egin, eta esleipendunari errekerimendua formulatu, esleipena gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezan.
- Tolosako udalak egindako esleipen proposamena loteslea izango da Gipuzkoako Urak Sarentzat. Halaber, Gipuzkoako Urak SAK Tolosako Udalak proposaturiko esleipena ebatziko du hamar eguneko epean.
- Obra zuzendaritza izendatu.

Gipuzkoako Urak SAK, bere aldetik, ondoko eskubide hauek izango ditu:

- I. Ordezkarri bat izendatzeko eskubidea, Tolosako Udaleko kontratazio-mahaiko bileretan parte har dezan.
- II. Kontratazio espedienteko dokumentazioa (pleguak, txostenak, aktak, esleipen proposamena etab.) kontsultatzeko eta bere iritzia emateko eskubidea.
- III. Teknikari bat izendatzeko eskubidea, berari dagokion obra gainbegira dezan.

BIGARRENA.- Tolosako udalak eta Gipuzkoako Urak SAK izenpetuko dute obra-kontratu bana, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin.



Erakunde bakoitzak izango du eskumena dagokion obraren exekuzioan zehar. Edonola ere, obraren exekuzioa, harrera eta likidazioa, Baldintza Administratiboen Pleguan eta Preskripzio Teknikoen Orrian xedaturikoaren arabera emango dira. Era honetan:

- *Erakunde bakoitzak dagokion obra-kontratua izenpetuko du, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin, onarturiko Proiektuaren arabera.*
- *Erakunde bakoitzak ordainduko ditu bere betebeharrak dagozkien fakturak edo obra ziurtagiriak, Baldintza Administratiboen Pleguan xedaturikoari jarraituz.*
- *Kontratuaren aldaketak, halakorik badago, Baldintza Administratiboen Pleguan eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak xedaturikoarekin bat etorriko dira. Erakunde bakoitza arduratuko da dagokion obra zatiaren aldaketaz.*
- *Obren exekuzioan aldaketak egiten badira, aldaketa espedientearen berri eman beharko zaio beste erakundeari.*
- *Erakunde bakoitzak hartuko du dagokion obra-zatia, eta haren likidazioa ebatziko du.*

Horretaz gain, Gipuzkoako Urak SAK kontratua bertan behera utziko nahi izango balu, Tolosako Udalaren baimena jaso beharko luke, izan ere, bi kontratuak batera exekutatu behar dira.

HIRUGARRENA.- *Erakunde bakoitzak finantzatu du bakoitzari dagokion obra-zatia. Proiektuan jasotakoaren arabera, hasiera batean erakunde bakoitzari dagokion kopurua honakoa da:*

| Entitatea | Zenbat BEZik gabe | Zenbat BEZarekin | Guztizkoaren %-a |
|------------------------------|-------------------|------------------|------------------|
| Tolosako Udala | 407.849,82 | 493.498,28 | 76,40 % |
| Gipuzkoako Urak SA | 99.335,25 | 120.195,65 | 18,61 % |
| Tolargi, S.L. | 26.674,75 | 32.276,45 | 5,00 % |
| Telefónica de España, S.A.U. | ,00 | ,00 | 0,00 % |

Bi alderdiek onartu dituzte aurrekontu horiek egintza honetan. Halaber, hitzarmena sinatzerakoan, kontratazio hauei aurre egiteko nahikoa kreditua erabilgarria dutela adierazi dute agertutakoek.

LAUGARRENA- *Hitzarmen honen iraupena lotuta egongo da lanaren exekuzioarekin, amaierarekin eta kitapenarekin. Beraz, amaituko da obraren kitapenarekin batera. Baldintza Administratiboen Pleguan xedatutakoaren arabera, obraren iraupena bost (5) hilabetekoa izango da.*

BOSGARRENA.- *Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du, eta bertan aurreikusten ez den guztian honako hauek aplikatuko dira:*

- *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea*
- *Sektore Publikoko Araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legea*
- *Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legea.*

Eta goian aipaturiko lekuan eta datan, bi ordezkariak izenpetu dute hitzarmen hau, beren adostasuna adieraziz.

TOLOSAKO UDALA

GIPUZKOAKO URAK SA

Olatz Peon Ormazabal

Iñigo Elosegui Vallejo



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Obra eta Zerbitzuetako Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

5. ONARTZEA TOLARGI SL ENPRESAREKIN HITZARMENA SINATZEA, TOLOSAKO GERNIKAKO ARBOLA LORATEGIAK EREMUKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO-OBRAK EGITEKO.

Gernikako Arbola lorategiak Urbanizatzeko obretan aurreikusten dira hainbat lan Tolargi SLk egin behar dituenak, elektrizitate sarearen berrikuntzako lanak, hain zuen ere.

Aurrekoetan horrelako lanak egiteko, Tolargi SLrekin hitzarmenak sinatu dira eta, horien ondorioz, Tolosako Udalak egiten zituen obra guztiak eta Tolargi SL erakundeak ordaindu egiten zizkion Tolosako Udalari elektrizitate sarearen lanei zegozkien kopuruak.

Hala ere, azkeneko obretan egin den moduan, Kontratazio Publikoari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen oinarrituta. Tolosako Udalak eta Tolargik, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak Urbanizatzeko lanak kontratatzeke jardunbide bateratua garatuko dute, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.

Sistema honek hobeto bermatzen ditu erakunde bakoitzaren betebeharrak eta ardurak, izan ere erakunde bakoitza izango da bere kontratuaren jabe, nahiz, eta kontratazio jardunbidea bide bateratutan eramango duen Tolosako Udalak, egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa dutelako.

Beraz, akordio hau hartzea proposatzen da

I.- AURREKARIAK

Sektore Energetikoko 54/1997 Legearen aginduari jarraituz sortu zen Tolargi SL.

Tolosako Udalak eta Tolargik azken urteotan sinatu dituzte hitzarmenak, hainbat urbanizazio obretako elektrizitate sarearen kostuak Tolargik bere gain har ditzan.

Ikusirik Udalak egin behar dituen obrak egiteko kaleko zorua altxatu behar dela, momentu egokia da elektrizitate sarea aldatzeko.

Tolargik egokitzat hartuko du Udalak egindako proiektua.

II.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Lehena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB



zuzentzaruen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL), 31. artikuluan, sektore publikoko erakundeen arteko kooperazio horizontala zein bertikala arautzen ditu eta honako hau xedatzen:

31. artikulua. Auto-antolaketarako ahalmena eta lankidetzak publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.

1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetako batean, lankidetzak horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:

a) Lankidetzak bertikaleko sistemen bitartez, alegia, bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz botere adjudikatzaileentzat 32. artikuluan eta botere adjudikatzailearen izaera ez duten sektore publikoko enteentzat 33. artikuluan ezarritako zentzuarekin eta mugekin, beren burua antolatzeko ahalmenaz baliatuta, kasuan kasuko mandatu-akordioaren bitartez.

b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzak horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek, nolahi ere, berriazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute.

3. Kontratazio-prozedura bat bere osotasunean hainbat erakunde beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango da beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.

Kontratazio-prozedura bat erakunde interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eramaten dituzten atalei dagokienez izango da erakunde horien guztien erantzukizuna. Erakunde bakoitza bere betebeharrak betetzearen erantzule bakarra izango da bere izenean eta bere kontura aurrera eramaten dituen ataletan.

Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Tolargi SLk botere esleitzzailearen izaera du. Izan ere:

- Erabat Udalarena den merkataritza-enpresa publikoa da.
- Bere xedea enpresa hornitzaile izatea da.
- Tolosako Udalak haren jarduera kontrolatzen du.

Beraz, ikusita Tolosako Udala eta Tolargi SL sektore publikoko entitateak direla, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta **hitzarmenen bidez, kontratazio jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko. Kasu horretan, 31. artikuluan 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.**

Bigarrena.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste, udal eskumenerako zerbitzuak emateko, toki



TOLOSAKO
UDALA

administrazioaren eta gainontzeko administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du. Lankidetzak hori dagokion hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Kasu honetan, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko obrak kontratatzeko eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Tolargik izenpetzen duten hitzarmena kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47., 48., 49., 50., 51., 52., eta 53. artikuluetan xedaturikoa izango da.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna zehazteko, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak eta 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, zehazten dutena izan beharko da kontuan. Hitzarmenaren xedea obra-kontratu bat denez, kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeak aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak, hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena alkate-lehendakariarena da. Hala ere, 2019/1228 Alkatetza-Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zizkion hainbat eskumen, horien artean lankidetzak-hitzarmenak; beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.**

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolargi SL erakundearekin hitzarmena sinatzea, Tolosako Gernikako Arbola Lorategiak Urbanizatzeko lanak modu bateratuan egiteko.

Hitzarmena honako hau da:

TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLARGI SLren ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Tolosan, 2020ko urriaren XXan

BILDURIK

OLATZ PEON ORMAZABAL ANDREA., Tolosako udaleko alkate-lehendakaria



TOLOSAKO
UDALA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA ANDREA., Tolargi SLren lehendakaria

Egintza honetan fede ematen du Tolosako Udaleko idazkari Begoña Garmendia Vazquezek.

ESKU HARTU DUTE

Begoña Tolosa Mendia andreak, bere kargua betez, Tolargi SLren izenean eta hura ordezkatzuz. Ordezkaritza hori Tolargi SL enpresaren 2020ko ekainaren 9ko administrazio kontseiluan izendatu zen.

Olatz Peon Ormazabal andreak, bere jarduneko kargua betez, Tolosako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Tokiko gobernu Batzarrek 2018ko martxoaren 6an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 2. dokumentu gisa.

AURREKARIAK

LEHENA.- Sektore Energetikoko 54/1997 Legearen aginduari jarraituz sortu zen Tolargi SL.

BIGARRENA.- Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak, 2020ko urriaren 15eko 2020/1659 Alkatetza-Dekretuaren bidez, Gernikako Arbola lorategien urbanizazioa jasotzen duen proiektua onartu zuen. Exekuzio-Proiektua GIRDER INGENIEROS enpresak idatzi du.

Proiektu horren barnean, elektrizitate sarearen berrikuntzako lanak aurreikusten dira. Lan horiek, aurrez aipatutako hitzarmenaren arabera, Tolargik exekutatu behar ditu, baina, zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, ezin dira banatu kalearen berrurbanizazioaren lanekin, eta, ondorioz bi obra aldi berean gauzatu behar dira, alegia, Tolosako Udalaren eskumeneko lanak, eta Tolargiri dagozkionak.

Tolargi SLren ordezkariak, bere aldetik, aipatu diren lanak 2020. urteko inbertsioen egitasmoaren barruan daudela azaldu du.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau izenpetzen duten ordezkarien aburuz, Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko exekutatu beharreko lanak era koordinatuan gauzatu behar dira, orain arte izan diren esperientzietan oinarriturik. Halaber, exekutatu behar diren obra guztiak aldi berean gauzatzuz gero, herritarrek jasango dituzten eragozpenak murriztu egingo dira. Ez da ahaztu behar, era berean, eremu horretan merkataritza-jarduera ugari garatzen direla, eta ezinbestekoa da bermatzea obren exekuzioa ahalik eta azkarren gauzatuko dela. Azkenik, bi obra batera exekutatuta, xede horretara atxikiko diren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuko dira, efizientzia eta eraginkortasuna hobetuz. Arrazoi hauengatik, hemen agertzen diren ordezkariak onartu dute bi erakundeen arteko kooperazioa jasotzen duen lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea, ondoko xedearekin:

- Tolosako Gernikako Arbola lorategiak Urbanizatzeko lanak egiteko kontratazio jardunbide bakarra gauzatuko dute Tolosako Udalak eta Tolargi SLk. Horretarako, Tolargi SLk ezinbestekoa den ahalmena ematen dio Tolosako Udalari obren kontratazio-jardunbidea izapide dezan, obren esleipenduna proposatu arte.



- Erakunde bakoitzaren organo eskudunak dagokion obren adjudikazioa ebatziko du, eta kontratua izenpetuko du. Beraz, bi kontratu izenpetuko dira, bata, Tolosako Udalak, eta, bestea, Tolargi SLk, bakoitzari dagokion obraren arabera.
- Erakunde bakoitzeko organo eskudunak izango du bere kontratuaren exekuzio, harrera eta likidazioaren ardura.
- Obrak finantzatzeko irizpideak adostuko dituzte bi erakundeek eta dokumentu honetan islatuko dituzte.

Hitzarmen honetan xedatzen den kooperazio esparruaren jarraipena egiteko, batzorde bat eratuko dute bi erakundeek

LAUGARRENA.- *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikulua sektore publikoko erakundeen arteko kooperazio horizontala zein bertikala arautzen ditu eta honako hau xedatzen:*

31. artikulua. Auto-antolaketa arakoa ahalmena eta lankidetzaren publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.

1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetako batean, lankidetzaren horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:

a) Lankidetzaren bertikaleko sistemen bitartez, alegia, bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz botere adjudikatuak ematearen bitartez 32. artikuluan eta botere adjudikatuak ematearen bitartez 33. artikuluan ezarritako zentzuarekin eta mugekin, beren burua antolatzearen ahalmenaz baliatuta, kasuan kasuko mandatu-akordioaren bitartez.

b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek, nolana ere, berariazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute.

3. Kontratazio-prozedura bat bere osotasunean hainbat erakunde beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango da beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.

Kontratazio-prozedura bat erakunde interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eramaten dituzten atalei dagokienez izango da erakunde horien guztien erantzukizuna. Erakunde bakoitzak bere betebeharrak betetzearen erantzule bakarra izango da bere izenean eta bere kontura aurrera eramaten dituen ataletan.

*Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Tolargi SLk, **botere esleituak ematearen bitartez** du. Izan ere:*

- Erabat Udalarena den merkataritza-enpresa publikoa da.
- Bere xedea da enpresa hornitzailea izatea.
- Tolosako Udalak haren jardura kontrolatzen du.

*Beraz, ikusita Tolosako udala eta Tolargi SL sektore publikoko entitateak direla, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta hitzarmenen bidez, **kontratazio jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko. Kasu horretan, 31. artikuluan 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.***



TOLOSAKO
UDALA

BOSGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste, udal eskumenero zerbitzuak emateko, toki administrazioaren eta gainontzeko administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoak, teknikoak eta administratiboak arautzen du. Lankidetzak hori dagokion hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Kasu honetan, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko obrak kontratatze eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Tolargik izenpetzen duten hitzarmena kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47., 48., 49., 50., 51., 52., eta 53. artikuluetan xedaturikoa izango da.

SEIGARRENA.- Bi erakundearen arteko kooperazio esparruaren araubidea argitu ondoren, Tolosako Udalak eta Tolargi SLk hitzarmen hau sinatzen dute, Tolosako Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko lanak kontratatze jardunbide bateratua garatzeko, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.

Kontuan izanda Tolosako Udalak egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa dutela, bi aldeek onartzen dute Tolosako Udalak izapidetuko duela Tolosako Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko lanen kontratazio espedientea, eta Tolosako Udalak aztertuko dituela eskaintzak eta obren adjudikazioa proposatuko duela.

Hala ere, obra kontratua bitan banatuko da, alde batetik, Tolargi SLk bere gain hartuko du elektrizitate sarearen obrak egitea eta ordaintzea, eta, bestetik, gainontzeko obrak Tolosako Udalak hartuko ditu bere gain.

Obra proiektua GIRDER INGENIEROS enpresak egin du, eta Tolargi SL enpresak onartu egiten du eta ontzat ematen du egindako proiektua.

Beraz, bi erakundeetako ordezkariak

HITZARTU DUTE

LEHENA.- Tolosako Udalak eta Tolargi SLk onartzen dute Tolosako Udalak izapidetuko duela Tolosako Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko obren espedientea, GIRDER INGENIEROS enpresak egindako proiektuaren arabera.

Tolargi SLk ontzat ematen du proiektu hori. Nolanahi ere, aurreikusten diren lan guztiak bat etorriko dira REBT Araudi Teknikoak eta aplikatu beharreko araudiak xedatzen dituzten eskakizunekin eta, ondorioz, nahiz eta proiektuan jasotako elektrizitate sarearen lanak ontzat ematen diren, edozein kasutan aipatutako araudiak bete beharko dira.

Halaber, Tolargi SLk bere adostasuna adierazten du Tolosako Udalak onarturiko Baldintza Administrazioen Pleguarekin eta Preskripzio Teknikoen Orriarekin.

Kontratua esleitzeko jardunbidea SPKLn xedaturikoarekin bat etorriko da. Hortaz, jardunbide irekia erabiliko da, SPKLn aurreikusitakoari jarraituz. Halaber, eskaintzak balioesteko eta ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide



TOLOSAKO
UDALA

erabiliko dira, SPKLren 145. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz. Azkenik, espedientearen izapidetzea ohikoa izango da.

Ondorioz, Tolosako Udalak eskumen hauek izango du kontratua esleitzeko:

- Baldintza Administrazioen Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria onartu.
- Kontratazio-espedientea onartu.
- Lizitazioa abian jarri.
- Iragarkiak egin..
- Kontratazio mahaia osatu.
- Eskaintzak aztertu eta baloratu, bai teknikoki, baita ekonomikoki ere, Pleguetan xedatutakoari jarraituz.
- Esleipen proposamena egin, eta esleipendunari errekerimendua formulatzea, esleipena gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezan.
- Tolosako Udalak egindako esleipen proposamena loteslea izango da Tolargi SLrentzat. Halaber, Tolargi SLk Tolosako udalak proposaturiko esleipena ebatziko du hamar eguneko epean.
- Obra zuzendaritza izendatu.

Tolargi SLk, bere aldetik, ondoko eskubide hauek izango ditu:

- Ordezkarri bat izendatzeko eskubidea, Tolosako Udaleko kontratazio mahaiko bileretan parte har dezala
- Kontratazio espedienteko dokumentazioa (pleguak, txostenak, aktak, esleipen proposamena etab.) kontsultatzeko eta bere iritzia emateko eskubidea.
- Teknikari bat izendatzeko eskubidea, berari dagokion obra gainbegira dezan.

BIGARRENA.- Tolosako Udalak eta Tolargi SLk izenpetuko dute obra-kontratu bana, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin.

Erakunde bakoitzak izango du eskumena dagokion obraren exekuzioan zehar. Edonola ere, obraren exekuzioa, harrera eta likidazioa, Baldintza Administrazioen Pleguan eta Preskripzio Teknikoen Orrian xedaturikoaren arabera emango dira. Era honetan:

- Erakunde bakoitzak, dagokion obra-kontratuaren izenpetuko du, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin, onarturiko Proiektuaren arabera.
- Erakunde bakoitzak ordainduko du bere betebeharreri dagozkien fakturak edo obra ziurtagiriak, Baldintza Administrazioen Pleguan xedaturikoari jarraituz.
- Kontratuaren aldaketak, halakorik badago, Baldintza Administrazioen Pleguan eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak xedaturikoarekin bat etorriko dira. Erakunde bakoitza arduratuko da dagokion obra zatiaren aldaketaz.
- Obren exekuzioan aldaketak egiten badira, aldaketa espedientearen berri eman beharko zaio beste erakundeari.
- Erakunde bakoitzak hartuko du dagokion obra-zatia, eta haren likidazioa ebatziko du.

Horretaz gain, Tolargi SLk kontratua bertan behera utziko nahi izango balu, Tolosako Udalaren baimena jaso beharko luke, izan ere, bi kontratuak batera exekutatu behar dira.



TOLOSAKO
UDALA

HIRUGARRENA.- Erakunde bakoitzak finantzatuko du bakoitzari dagokion obra-zatia. Proiektuan jasotakoaren arabera, hasiera batean erakunde bakoitzari dagokion kopurua honakoa da:

| Entitatea | Zenbat BEZik gabe | Zenbat BEZarekin | Gutzizkoaren %-a |
|------------------------------|-------------------|------------------|------------------|
| Tolosako Udala | 407.849,82 | 493.498,28 | 76,40 % |
| Gipuzkoako Urak SA | 99.335,25 | 120.195,65 | 18,61 % |
| Tolargi, S.L. | 26.674,75 | 32.276,45 | 5,00 % |
| Telefónica de España, S.A.U. | ,00 | ,00 | 0,00 % |

Bi alderdiek onartu dituzte aurrekontu horiek egintza honetan. Halaber, hitzarmena sinatzerakoan, kontratazio hauei aurre egiteko nahikoa kreditua erabilgarria dutela adierazi dute agertutakoek.

LAUGARRENA- Hitzarmen honen iraupena lotuta egongo da lanen exekuzioarekin, amaierarekin eta kitapenarekin. Beraz, amaituko da obren kitapenarekin batera. Baldintza Administrazioen Pleguan xedatutakoaren arabera, obren iraupena bost (5) hilabetekoa izango da.

BOSGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administrazioa izango du, eta bertan aurreikusten ez den guztian ondoko hauek aplikatuko dira:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Sektore Publikokok Araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legea
- Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legea.

Eta goian aipaturiko lekuan eta datan, bi ordezkariak izenpetu dute hitzarmen hau, beren adostasuna adieraziz.

TOLOSAKO UDALA

Tolargi SL

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Mendia Tolosa

Bigarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Obra eta Zerbitzuetako Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.



6. ONARTZEA TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU ENPRESAREKIN HITZARMENA SINATZEA, HAREN JABETZAKO AIREKO ETA/EDO FATXADETAKO TELEFONO INSTALAZIOAK KENTZEKO ETA TELEKOMUNIKAZIOETAKO INSTALAZIO LURPERATUAK ERABILTZEKO, TOLOSAKO GERNIKAKO ARBOLA LORATEGIAK EREMUKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO OBRAK EGITEKO.

Tolosako Udalak, Gernikako Arbola lorategiak urbanizatzeko obren barruan, aireko trazaduran egun dauden telekomunikazioetako instalazioak lurperatzeko behar den obra zibila egin behar du.

Obra horien helburuetako bat da lurperatzea TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAUren jabetzako aireko eta/edo fatxadetako telefono-instalazioak.

Lurperatze hori gauzatzeko Tolosako Udalak eta TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU enpresak lankidetzan hitzarmena adostu dute ondorengo ezaugarri nagusiak izango dituen:

- TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU enpresak bere gain hartuko ditu egun dauden aireko eta/edo fatxadako instalazioak desmuntatzeko lanak, eta horiek ondoren lurperatuko ditu Udalak eraikitako azpiegitura kanalizatuan.
- Udalak TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU enpresari lagako dio hitzarmen honen babeseko telekomunikazioetako azpiegituraren erabilera, hitzarmenaren lurralde-eremuan egun dauden aireko eta/edo fatxadako instalazioak aldatzeko lanen ordainetan.

Hitzarmenak 18 hilabeteko iraunaldia izango du sinatzen denetik hasita. Nolanahi ere, lurperatzeko lanak gauzatzeko epea lau hilabetekoa izango da «Onartzeko akta» sinatzen denetik zenbatzen hasita.

APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen arabera (art 45.1) hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek, zeinek bere eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahalko dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea (art 48.1).

Hitzarmenak sinatuta kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin



daitezen lagundu, eta aurrekontu egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete (48.3).

Gure kasuan, hitzarmen honen oinarria ondorengoa da: urbanizazio jasangarriagoa izatea eta hiri-paisaia hobetzea. Gernikako Arbola lorategietan telekomunikazioko sarea aireko trazaduran dago egina. Egin den urbanizazio lanen helburuetako bat da aireko instalazioa desagertzea eta telekomunikazio sarea lurperatzea. Hori horrela, ez dago inolako arrazoirik ez egiteko instalazioen aldaketa.

Tolosako Udalak planeamenduaren eta eraikuntzen ordenantzaren bidez behartu ahal du urbanizazio berrietan telekomunikazio sarea lurperatzea. Eta gauza bera egin dezake berrurbanizatzen denean aurrez urbanizatuta dagoen eremu bat. Hala ere, azken kasu horretan aurrez jarritako instalazioen aldaketaren kostua Udalak hartu beharko luke bere gain. Hau da, aurrez telekomunikazio sarea egina dagoenean, sare horren aldaketaren kostua Udalaren esku izango litzateke.

Kontua da gaur egun dagoen sare guztia Telefónicarena dela eta Udalak ezin duela behartu Telefónica bere gain hartzera instalazioen aldaketa. Ondorioz, hitzarmenaren bidez lortzen dena da instalazioa lurperatzea Tolosako Udalak inongo kosturik gabe.

Bestalde, Telekomunikazio Lege Orokorrek honela dio 36. eta 37. artikuluetan:

Art 36 Previsión de infraestructuras de comunicaciones electrónicas en proyectos de urbanización y en obras civiles financiadas con recursos públicos

1. Cuando se acometan proyectos de urbanización, el proyecto técnico de urbanización deberá prever la instalación de infraestructura de obra civil para facilitar el despliegue de las redes públicas de comunicaciones electrónicas, pudiendo incluir adicionalmente elementos y equipos de red pasivos en los términos que determine la normativa técnica de telecomunicaciones que se dicte en desarrollo de este artículo.

Las infraestructuras que se instalen para facilitar el despliegue de las redes públicas de comunicaciones electrónicas conforme al párrafo anterior formarán parte del conjunto resultante de las obras de urbanización y pasarán a integrarse en el dominio público municipal. La administración pública titular de dicho dominio público pondrá tales infraestructuras a disposición de los operadores interesados en condiciones de igualdad, transparencia y no discriminación.

Mediante real decreto se establecerá el dimensionamiento y características técnicas mínimas que habrán de reunir estas infraestructuras.

2. En las obras civiles financiadas total o parcialmente con recursos públicos se preverá, en los supuestos y condiciones que se determinen mediante real decreto, la instalación de recursos asociados y otras infraestructuras de obra civil para facilitar el despliegue de las redes públicas de comunicaciones electrónicas, que se pondrán a disposición de los operadores interesados en condiciones de igualdad, transparencia y no discriminación.

Artículo 37. Acceso a las infraestructuras susceptibles de alojar redes públicas de



comunicaciones electrónicas.

1. Las administraciones públicas titulares de infraestructuras susceptibles de ser utilizadas para el despliegue de redes públicas de comunicaciones electrónicas facilitarán el acceso a dichas infraestructuras, siempre que dicho acceso no comprometa la continuidad y seguridad de la prestación de los servicios de carácter público que en dichas infraestructuras realiza su titular, en condiciones objetivas, de transparencia y no discriminación a los operadores que instalen o exploten redes públicas de comunicaciones electrónicas, sin que en ningún caso pueda establecerse derecho preferente o exclusivo alguno de acceso a las infraestructuras citadas en beneficio de un operador determinado o de una red concreta de comunicaciones electrónicas. En particular, el acceso a dichas infraestructuras para la instalación o explotación de una red no podrá ser otorgado o reconocido mediante procedimientos de licitación.

Proposatzen den hitzarmenaren arabera, ez da zalantzan jartzen beste telekomunikazio enpresek duten eskubidea azpiegiturak erabiltzeko, baina obra eremuan beste enpresek badute lurrazpiko sarea eta proiektua egiterakoan ez dutela eremuan azpiegituraren aldaketarik adierazi dute.

Hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna zehazteko, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak eta 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, zehazten dutena izan beharko da kontuan. Hitzarmenaren xedea, obra-kontratu bat denez, kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak, hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena alkate-lehendakariarena da. Hala ere, 2019/1228 Alkatetza-Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zizkion hainbat eskumen, horien artean lankidetzeta-hitzarmenak; beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.**

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea TELEFONICA DE ESPAÑA SAU enpresarekin hitzarmena sinatzea, Gernikako Arbola lorategietan TELEFONICA DE ESPAÑA SAU enpresaren jabetzako aireko eta/edo fatxadetako telefono instalazioak kentzeko eta telekomunikazioetako instalazio lurperatuak erabiltzeko.



Honako hau da hitzarmena:

**TOLOSAKO UDALAREN ETA TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU ENPRESAREN ARTEKO
HITZARMENA, TELEKOMUNIKAZIOETAKO AZPIEGITURA KANALIZATUEI BURUZKOA.**

Tolosan, 2020ko urriaren XXan

BILDURIK

Batetik, OLATZ PEON ORMAZABAL andrea, Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria, Udaleko idazkari Begoña Garmendia Vazquez andreak lagunduta.

Eta bestetik, ANDRÉS GONZÁLEZ DE LA ALEJA GREGORIO jauna, NANA:44.388.625-M, adinez nagusia eta zeregin hauetarako, Madrileko Ronda de la Comunicación s/n, Distrito Telefonica, edificio T, helbidea duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkartzan. Horretarako behar dituen ahalmenak ematen baitizkio 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak. Bigarrenak, TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU enpresaren izenean eta ordezkartzan (IFK: A82018474; helbide soziala: Ronda de la Comunicación s/n, Distrito Telefonica, edificio T, Madrid, Iparraldeko lurralde-idazkaria den aldetik, Madrileko notario Ana López-Monís Gallego andreak 2018ko ekainaren 12an eskritura publikoan jasotakoaren arabera (protokolo-zenbakia: 3013).

Agertutakoak adierazten du bere karguko betebeharrean dagoela, ezen bere aldeko ahalmenak eta ordezkartza ez zaizkiola errebokatu, kendu edo mugatu, oso-osorik daudela indarrean eta bere ordezkatuaren gaitasun juridikoa ere ez dela aldatu.

Bi aldeek, bakoitzak ordezkartzen duenaren izenean jardunez, obligazioak hartzeko legezko gaitasuna elkarri aitortu eta, kontratu honen ondorioetarako, erabakitzen dute honakoa xedatzea:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

1. Tolosako Udalak gauzatuko duela aireko trazaduran egun dauden telekomunikazioetako instalazioak lurperatzeko behar den obra zibila Gernikako Arbola lorategiak eremuan. Lan hori Telefónica enpresak emandako datuen arabera egin dute.

2. Aipatutako proiektuaren gauzatzearekin batera, Udalak lurperatu nahi dituela TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU enpresaren jabetzako aireko eta/edo fatxadetako telefono-instalazio jakin batzuk. Esandako eremu horretan daude egun instalazio horiek, eta hitzarmen honi 4. eranskin gisa gehitutako planoan zehaztu ditu.

3.- Hitzarmen hau idatzi dela bi alderdien helburuak lortzea errazten duen lankidetzara eraginkorra ezartzearen, honako estipulazio hauei jarraikiz:



ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da lankidetza-esparru bat ezartzea Udalaren eta TELEFÓNICA DE ESPAÑA enpresaren artean, behar diren lanei ekin, eta, horrela, Tolosako Gernikako Arbola lorategietan egun aireko instalazioan eta/edo fatxadan dauden TELEFÓNICA DE ESPAÑAren jabetzako telefono-instalazioak lurpeko azpiegitura kanalizatuetan egin ahal izateko. Aipatutako instalazio horiek 4. dokumentu gisa gehitutako planoan zehaztuta daude.

Hitzarmen honen ondorioetarako, telekomunikazioetako azpiegitura kanalizatutzat hau hartzen da: hainbat elementu (hodiak, kutxatilkak, erregistro-ganberak, idulkiak, alboko irteerak...), zeinek, behar den obra zibilaz ezarrita edo eraikita egonik, kableak eta lotutako elementuak ezartzea ahalbidetzen duen irtenbidea osatzen baitute.

BIGARRENA.- UDALAREN JARDUERAK

Udalak osorik gauzatu du hitzarmen honen babeseko telekomunikazioetako azpiegitura, behar den obra zibila egitea eta beharrezko telefono-materialak ezartzea barne. Ezaugarriak (kanalizazioen neurriak eta eraikuntza-antolaketa, ezarritako eroanbideen kopurua eta tipologia, dauden erregistro-elementuen tipologia, etab.) 1. eranskin gisa gehitutako dokumentazioan zehaztuta daude.

Udalak bete ditu aplikatu beharreko araudi teknikoaren preskripzioak aipatutako azpiegitura eraikitzeke prozesuan, eta telekomunikazioetako zerbitzuak emateko egokiak diren telefono-materialak ezarri ditu.

Udalak eskuratu ditu behar diren era guztietako lizentziak eta baimenak eraikitzeke lanak gauzatzeko eta azpiegitura ezartzeko, eta bermatu du TELEFÓNICA DE ESPAÑAk azpiegituraren bakezko erabilera egin ahal izateko legezkotasun-baldintzak betetzen dituela.

Azkenik, Udala arduratu da informazioa eskatu eta tratatzeaz telekomunikazioetako azpiegitura eraikitzeke lanak egin dituzten eremuan lurpeko eroanbideak dituzten gainerako zerbitzuei buruz.

Horrenbestez, Udalak adierazten du guztiz egokia dela eraikitako azpiegitura telekomunikazioetako sare publikoak ezarri eta ustiatzeko.

HIRUGARRENA.- TELEFÓNICA DE ESPAÑA-REN JARDUERAK

Azpiegitura aztertzea

TELEFÓNICA DE ESPAÑAk egiaztatu ahal izango du azpiegitura ongi gauzatu dutela eta aplikatu beharreko araudira egokitzen dela, eta, horretarako, Udalarekin elkarlanean betiere, lanak baimentzen baititu, behar diren neurri eta lan guztiak gauzatu ahal izango ditu telekomunikazioetako zerbitzuak emateko egokiak dela egiaztatzeko. Egiaztatzeko lan horien ostean eta, hala badagokio, antzemandako akatsak Udalak zuzenduta, TELEFÓNICA DE ESPAÑAk beharrezko zaion azpiegitura eraikia onartuko du, eta hitzarmen honen bosgarren estipulazioan adierazitakoari jarraituko dio prozesu horretan. Obra-onarpena eginda ere, instalazioek urtebeteko berme-epaia izango dute ordutik aurrera.

Instalazioak lurperatzea



*TELEFÓNICA DE ESPAÑA*k gauzatuko ditu egun dauden aireko eta/edo fatxadako instalazioak desmuntatzeko lanak, eta horiek ondoren lurperatuko ditu Udalak hitzarmen honen babesean eraikitako azpiegitura kanalizatuan. Instalazioak aldatzeko lan horiek egin aurretik, azpiegitura kanalizatua onartu beharko dute hurrengo estipulazioetan xedatutako moduan.

Eraikitako azpiegitura mantentzeko lanak

*TELEFÓNICA DE ESPAÑA*k azpiegitura onartutakoan, eta hurrengo estipulazioan xedatutakoa betez, enpresa horrek haren gaineko mantentze- eta zaintze-lanak egingo ditu (eraikitze-akatsen ondoriozko kalteak izan ezik), eta hori haren erabiltzaile bakarra den bitartean.

LAUGARRENA.- AZPIEGITURA ONARTZEA

Udalak *TELEFÓNICA DE ESPAÑA* enpresari lagatzen dio hitzarmen honen babeseko telekomunikazioetako azpiegituraren erabilera (1. eta 4. eranskinetan zehaztuta dago), zeina, *TELEFÓNICA DE ESPAÑA*ren ustez egokia baita zerbitzuak behar bezala ematea bermatzeko, Udalak antzemandako akatsak zuzendu beharra hargatik eragotzi gabe.

*Behin betiko onarpena egiten den momentutik, lagatako telekomunikazioetako azpiegituraren gaineko erabilera oso eta iraunkorreko eskubidea sortuko da TELEFÓNICA DE ESPAÑA*ren alde, eta hartarako sarbide askea izango du ondorioz.

Hitzarmen honen sinatzaileek idatziz jasotzen dute Udalak *TELEFÓNICA DE ESPAÑA*ri lagatzen diola hitzarmenaren babesean eraikitako azpiegitura kanalizatuen erabilera, hitzarmenaren lurralde-eremuan egun dauden aireko eta/edo fatxadako instalazioak aldatzeko lanen ordainetan. Instalazio horiek, izan ere, aipatutako enpresak lurperatuko ditu laga beharreko azpiegiturei dagokienez, Udalarentzat kargurik gabe, eta elkarrekiko kontraprestazio orekatuak dira, hortaz. Hala bada, betetzen da, ondorioz, jabari publikoan dauden telefono-instalazioak aldatzeari dagokionez indarrean den legeria sektorialak xedatutako araubide juridikoa. *TELEFÓNICA DE ESPAÑA*k egungo aireko instalazioak lurperatzeaz gain, lagatako azpiegiturak erabili ahal izango ditu zerbitzuak emateko behar dituen sare eta ekipo berri guztiak ezartzeko.

BOSGARRENA.- OBRAK ONARTZEKO AKTAK

Eraikitako azpiegitura kanalizatua onartzeko prozesuan honako dokumentazio hau erabili behar da:

a) Baldin eta azpiegitura onartzeko moduan badago, 2. eranskineko eredia («Onartzeko akta») bete eta sinatuko da.

b) Baldin eta azpiegitura, eraikitze-akatsak direla-eta, ez badago onartzeko moduan, 3. eranskineko eredia («Onartzeko prozesua eteteko akta. Zuzendu beharreko akatsen zerrenda») bete eta sinatuko da. Akats horiek zuzendutakoan, eta azpiegitura onartzeko moduan badago, 2. eranskineko eredia («Onartzeko akta») bete eta sinatuko da.

c) Baldin eta, «Onartzeko prozesua eteteko akta. Zuzendu beharreko akatsen zerrenda» izeneko dokumentuan adierazitako datatik hiru hilabete igaro ostean, bertan adierazitako akatsak oraindik zuzendu gabe badaude, *TELEFÓNICA DE ESPAÑA*k hitzarmen honetan sinatutako akordioa behin betiko indargabetuztat jotzeko eskubidea izango du.



SEIGARRENA.- ERAIKINETAKO BARNEKO AZPIEGITURAK

Kanpoko azpiegitura kanalizatuei jarraitutasuna ematearren, eta egokien irizitako prozeduren bitartez, aireko oraingo banako harguneen eraginpean dauden higiezin jabeek behar diren egokitze-lanak egin beharko dituzte telefono-instalazioak haien barruan sartu eta jartzeko, betiere horrelakoen sarbide eta kokapena barnetik egiten bada, eta egokitze horri buruz ondoren jabeen eta TELEFÓNICA DE ESPAÑAren arteko hitzarmenik egitea alde batera utzi gabe.

Nolanahi ere, TELEFÓNICA DE ESPAÑA**k** barneko egokitze-lan horiek behar bezala gauzatu dituztela egiaztatuko du aireko instalazioak lurperatzeko lanei ekin aurretik.

Telefono-instalazioen sarbide eta kokapena eragindako higiezin barnean egiten denean, lurperatzeko lanak ez dira egingo, harik eta, aurretik, zerbitzu-prestazioaren jarraitutasuna eta kalitatea behar bezala bermaturik egon arte. Halaber, higiezin horien jabeek haietan eraikitako barneko azpiegiturak erabiltzeko baimena ere eman beharko diote aurretik TELEFÓNICA DE ESPAÑA enpresari.

ZAZPIGARRENA. - INDARRALDIA ETA ONDORIOAK

Hitzarmen honek 18 hilabeteko iraunaldia izango du sinatzen denetik hasita. Nolanahi ere, lurperatzeko lanak gauzatzeko epea lau hilabetekoa izango da «Onartzeko akta» sinatzen denetik zenbatzen hasita.

ZORTZIGARRENA.-KONFIDENTZIALTASUNA

Sinatzaileek ahalik eta zuhurtasun eta konfidentzialtasun handienaz tratatuko dute hitzarmen honen ondorioz ezagutzen dituzten eraikitze-irtenbideei eta sare-instalazioei buruzko informazio teknikoa, hitzarmen honek indarreko antolamenduaren arabera bete behar dituen publikotasun- eta gardentasun-printzipioak alde batera utzi gabe betiere.

Eta jasota gera dadin eta, azaldutako guztiarekin adostasuna adieraziz, bi alderdiek hitzarmen honen bi kopia sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean

TOLOSAKO UDALA

TELEFÓNICA DE ESPAÑA SAU

Olatz Peon Ormazabal

Andrés González de la Aleja Gregorio

Bigarrena.- Erabaki hauek jakinaraztea Obra eta Zerbitzuetako Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.



TOLOSAKO
UDALA

7. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- 2020/1653 DEKRETUA: 2020/43 ETA 2020/44 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2020/1653 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/1653

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

43. zenbakia duena, 211.793,38 eurokoa

44. zenbakia duena, 526 eurokoa

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta faktura horiek ordaintzeko agintzea:

43. zenbakia duena, 211.793,38 eurokoa

44. zenbakia duena, 526 eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosan, 2020ko urriaren 15ean

Zinegotzi delegatua

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

8. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URRIAREN 1ETIK 8RA (2020/1542-2020/1606).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko urriaren 1etik 8ra bitartean (dk2020/1542-dk 2020/1606) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

| ZKA | URTEA | EGUNA | SAILA/AZPISAILA | DESKRIBAPENA |
|------|-------|------------|------------------|--|
| 1542 | 2020 | 01/10/2020 | HIRIGINTZA | FATXADA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA-MARTIN JOSE IRAOLA 6 |
| 1543 | 2020 | 01/10/2020 | HIRIGINTZA | LEIHOAK HANDITZEKO BAIMEN ESKAERA-MARTIN JOSE IRAOLA 2, 5C |
| 1544 | 2020 | 01/10/2020 | HIRIGINTZA | RAKU TARBERNARI TERRAZA JARTZEKO BAIMENA EMATEA |
| 1545 | 2020 | 01/10/2020 | KONTUHARTZAILTZA | 2020KZZG0040 |



| ZKA | URTEA | EGUNA | SAILA/AZPISAILA | DESKRIBAPENA |
|------|-------|------------|--------------------|--|
| 1546 | 2020 | 01/10/2020 | GIZARTE ZERBITZUAK | URRIKO ALOKAIRUAK GLL KONTURA ORDAINTZEA |
| 1547 | 2020 | 01/10/2020 | KONTUHARTZAILETZA | 2020KZZG0039 - ZATIKAPENA ONARTZEA |
| 1548 | 2020 | 01/10/2020 | KONTUHARTZAILETZA | 2020KZZG0041 - ZATIKAPENA ONARTZEA |
| 1549 | 2020 | 01/10/2020 | HIRIGINTZA | KORREO 24KO TEILATUPEKO TRASTELEKUA ETXEBIZITZA BIHURTZEKO OBRA-LIZENTZIARI SEI HILABETEKO EPE LUZAPENA EMATEA (2019/1152 DEKRETU BIDEZ EMANDAKO OBRA BAIMENA) |
| 1550 | 2020 | 01/10/2020 | KONTUHARTZAILETZA | 2020KZZG0042 - ZATIKAPENA ONARTZEA |
| 1551 | 2020 | 01/10/2020 | KONTUHARTZAILETZA | 2020KZZG0043 - ZATIKAPENA ONARTZEA |
| 1552 | 2020 | 01/10/2020 | IDAZKARITZA | 2019ERRE0026 EBAZPENA |
| 1553 | 2020 | 01/10/2020 | IDAZKARITZA | 2020ERRE0016 HASIERAKO EBAZPENA |
| 1554 | 2020 | 01/10/2020 | GIZARTE ZERBITZUAK | URRIKO BESTEAK ZERRENDA GLL KONTURA ORDAINTZEA |
| 1555 | 2020 | 01/10/2020 | KONTUHARTZAILETZA | 2020KZZG0044 - ZATIKAPENA ONARTZEA |
| 1556 | 2020 | 02/10/2020 | HIRIGINTZA | ANDRE MARIA 18 BEHEKO "URDIÑA-TXIKI" ELKARTEKO SABAIA INTSONORIZATZEKO OBRA BAIMENA (JARDUERARI LOTUTAKO OBRA TXIKIA) |
| 1557 | 2020 | 02/10/2020 | HIRIGINTZA | KORREO KALEA 8-1. SOLAIRUKO ETXEBIZITZA BANATZEKO OBRA BAIMENA |
| 1558 | 2020 | 02/10/2020 | HIRIGINTZA | KORREO KALEA 8-1. SOLAIRUKO ETXEBIZITZA BANANTZEKO SEGREGAZIO BAIMENA |
| 1559 | 2020 | 02/10/2020 | IDAZKARITZA | BIDEOAKTAK EGITEKO KONTRATUA |
| 1560 | 2020 | 02/10/2020 | IDAZKARITZA | 2020ERRE0009 TOLOSAKO GARBIKETA UTERI ESPEDIENTEA IGORTZEA |
| 1561 | 2020 | 02/10/2020 | KONTUHARTZAILETZA | 2018H3340111 ESPEDIENTEKO BEHIN BETIKO EIOZ KITAPENA. ITZULKETA ONARTZEA. |



| ZKA | URTEA | EGUNA | SAILA/AZPISAILA | DESKRIBAPENA |
|------|-------|------------|--------------------|---|
| 1562 | 2020 | 02/10/2020 | UDALZAINGOA | GARRAIO ESKOLAR BAIMENA IUB |
| 1563 | 2020 | 02/10/2020 | ALKATETZA | ATZEGI" ELKARTEA, GUREAK LANEAN, S.A, ETA GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOAREKIN HITZARMENA SINATZEA |
| 1564 | 2020 | 02/10/2020 | KONTUHARTZAILETZA | 2018H3340219 ESPEDIENTEAREN OBRA AMAIERAREN KITAPENA. ITZULKETA ONARTZEA. |
| 1565 | 2020 | 02/10/2020 | GIZARTE ZERBITZUAK | GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUNAREN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO 2020KO DEIALDIA ONARTZEA |
| 1566 | 2020 | 02/10/2020 | PERTSONALA | OPOR EGUNAK (A.A.B.) |
| 1567 | 2020 | 02/10/2020 | PERTSONALA | OPOR EGUNAK (J.O.G.) |
| 1568 | 2020 | 02/10/2020 | IDAZKARITZA | TOPAGUNEAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA |
| 1569 | 2020 | 05/10/2020 | GIZARTE ZERBITZUAK | MARCOS RUIZI, FAIROUZ ACHABOUNI ETA YOUSSEF SAYERRI UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEA |
| 1570 | 2020 | 05/10/2020 | EUSKERA | GALTZAUNDIREKIN 2020KO LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA. |
| 1571 | 2020 | 05/10/2020 | HIRIGINTZA | KORREO 62-3.EZKERRA ETXEBIZITZAN OBRA-LIZENTZIARIK GABE EGINDAKO OBRAK ETETEKO AGINDUA |
| 1572 | 2020 | 05/10/2020 | EUSKERA | TOLOSA&CO-REKIN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA |
| 1573 | 2020 | 05/10/2020 | EUSKERA | GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEARI 2019-2020 IKASTURTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA. |
| 1574 | 2020 | 05/10/2020 | EUSKERA | GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAREKIN 2020-2021 IKASTURTERAKO LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA. |
| 1575 | 2020 | 05/10/2020 | EUSKERA | TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEARI 2019KO LANKIDETZA-HITZARMENAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA. |
| 1576 | 2020 | 05/10/2020 | HIRIGINTZA | AMAROTZ 15EKO JABEKIDEAK ETA ARARTEKOAK AURKEZTUTAKO IDATZIARI ERANTZUNA |



| ZKA | URTEA | EGUNA | SAILA/AZPISAILA | DESKRIBAPENA |
|------|-------|------------|--------------------|---|
| 1577 | 2020 | 05/10/2020 | IDAZKARITZA | 2020ERRE0008 ESPEDIENTEAN GUREAK BERDEARI ENTZUNALDIA TRAMITEA EMATEA |
| 1578 | 2020 | 05/10/2020 | DIRU-BILKETA | HILDAKO ARAU-HAUSLEEN IZENEAN IZAPIDETU DIREN PREMIAMENDU ESPEDIENTEEN BAJAK |
| 1579 | 2020 | 05/10/2020 | DIRU-BILKETA | ZOR GEHIAGO SORTU DITUZTEN ZERGADUNEN IZENEAN IZAPIDETZEN DIREN PREMIAMENDU ESPEDIENTEEN BAJAK |
| 1580 | 2020 | 05/10/2020 | DIRU-BILKETA | ZOR GEHIAGO SORTU EZ DITUZTEN ZERGADUNEN IZENEAN IZAPIDETZEN DIREN PREMIAMENDU ESPEDIENTEEN BAJAK |
| 1581 | 2020 | 05/10/2020 | GIZARTE ZERBITZUAK | CASER: ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA - ABUZTUA |
| 1582 | 2020 | 05/10/2020 | HIRIGINTZA | ZERKAUSIA 5 ERAIKINEKO TXIMINIA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA |
| 1583 | 2020 | 05/10/2020 | IDAZKARITZA | 2019ERRE0031 |
| 1584 | 2020 | 05/10/2020 | IDAZKARITZA | ETXEBIZITZA TASATUA EROSTEKO BALDINTZAK BETETZEN DIREN JAKINARAZTEA |
| 1585 | 2020 | 05/10/2020 | HIRIGINTZA | JARDUERA LEGEZTAPENERAKO INSTRUKZIOA |
| 1586 | 2020 | 05/10/2020 | HIRIGINTZA | KORREO 11 BEHEKO IRAKASKUNTZA AKADEMIA ETA PSIKOLOGIA BULEGO JARDUERAREN IRAUNGITZE HASIERA |
| 1587 | 2020 | 05/10/2020 | IDAZKARITZA | 2020ERRE0014 AMENABARRI ENTZUNALDI EPEA EMATEA |
| 1588 | 2020 | 06/10/2020 | ALKATETZA | ANDRE MARIA PARROKIARI DIRULAGUNTZA IZENDUNA EMATEA |
| 1589 | 2020 | 06/10/2020 | HIRIGINTZA | KORREO 19-4. SOLAIRUKO TEILATUPEAN VELUX MOTAKO BI LEIHO IPINTZEKO OBRA BAIMENA |
| 1590 | 2020 | 06/10/2020 | HIRIGINTZA | KALE NAGUSIA 30 BEHEKO "ANTIGUO" TABERNAREN JARDUERA IRAUNGITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERA |
| 1591 | 2020 | 06/10/2020 | IDAZKARITZA | OFIZIOZKO BAJAK EMATEA |
| 1592 | 2020 | 07/10/2020 | AZOKAK | JAS ELKARTEARI BAIMENA POSTUA JARTZEKO URRIAREN 10ERAKO |



| ZKA | URTEA | EGUNA | SAILA/AZPISAILA | DESKRIBAPENA |
|------|-------|------------|--------------------|---|
| 1593 | 2020 | 07/10/2020 | IDAZKARITZA | PROLONGACIÓN RONDILLA APARKALEKUKO 30 (-2) APAKALEKUAREN ESKUALDAKETARAKO GEHIENEO PREZIOA EMATEA |
| 1594 | 2020 | 07/10/2020 | HIRIGINTZA | TERRAZAREN AZALERA HANDITZEKO BAIMENA M.J.IRAOLA ETORBIDEA 1 BEHEA -66 TABERNA- |
| 1595 | 2020 | 07/10/2020 | IDAZKARITZA | 2020ERRE0011 ESPEDIENTEA KALTEAK KUANTIFIKATZEKO ESKATZEA. |
| 1596 | 2020 | 07/10/2020 | HIRIGINTZA | ALDABAKO BIDE BAT KONPONTZEKO ESKAERARI EZEZKOA |
| 1597 | 2020 | 07/10/2020 | HIRIGINTZA | ANDRE MARIA KALEA 18KO FATXADA KONPONDU ETA MARGOTZEKO OBRA BAIMENA |
| 1598 | 2020 | 07/10/2020 | HIRIGINTZA | ZERKAUSIA 4KO BEGIRATOKIAK ETA FATXADAN KONPONKETAK EGITEKO OBRA BAIMENA |
| 1599 | 2020 | 08/10/2020 | ALKATETZA | HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEARI 2020KO DIRULAGUNTZA IZENDUNA EMATEA |
| 1600 | 2020 | 08/10/2020 | IDAZKARITZA | ETXEBITZA TASATUA ESKURATZEKO BALDINTZEN AZTERKETA |
| 1601 | 2020 | 08/10/2020 | KONTUHARTZAILTZA | 42. FAKTUREN-ZERRENDA ONARTU ETA FAKTURA BAKOITZAREN ORDAINKETA AGINTZEA |
| 1602 | 2020 | 08/10/2020 | GIZARTE ZERBITZUAK | OSAKIDETZAREB TOLOSALDEKO ESİK NI ESPAZIO PUBLIKO ERABILTZEKO ESAKERARI ERANTZUNA |
| 1603 | 2020 | 08/10/2020 | AZOKAK | BERRIZ TOLOSA 2020 3. HIRUHILEKOA: LAGUNTZA ORDAINTZEA MIREN GARBIÑE OKARIZ-I |
| 1604 | 2020 | 08/10/2020 | HIRIGINTZA | PASTELERIA ECEIZA ,RONDILLA 34, ISTEKO AGINTZEA |
| 1605 | 2020 | 08/10/2020 | EUSKERA | KONTSEILUARI 2018KO LANKIDETZA HITZARMENAREN BIGARREN ZATIA ORDAINTZEA |
| 1606 | 2020 | 08/10/2020 | KONTUHARTZAILTZA | 2020TZKE0014 - GAINBALIOEN LIKIDAZIOEN AKATS ZUZENKETA |

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA